

## **JARDUERA FISIKO HEZITZAILEA**

### **ESKOLA ADINEAN:**

**GORPUTZ HEZIKETAREN ETA ESKOLA**

**KIROLAREN ARTEKO ELKARLANA**

### **GRADU AMAIERAKO LANA**

Egilea: Larrañaga Arzubialde, Peru.

Zuzendaria: Murciano Eizagirre, Aroa.

**2023**

## **AURKIBIDEA:**

<b>AURKIBIDEA:</b> .....	<b>2</b>
<b>LABURPENA:</b> .....	<b>4</b>
<b>ABSTRACT:</b> .....	<b>4</b>
<b>1. SARRERA:</b> .....	<b>5</b>
<b>2. MARKO TEORIKOA:</b> .....	<b>7</b>
2.1. Osasuna eta jarduera fisikoa eskola adinean.....	7
2.2. Garapen motorra, konpetentzia motorra.....	8
2.3. Praktika motorreko eremu arautuak.....	9
2.3.1. Heziketa Fisikoa.....	9
2.3.2. Eskola Kirola.....	11
2.3.2.1. EAEn.....	11
2.3.2.2. Gipuzkoan.....	12
2.3.2.3. Eskola Kirolaren onurak.....	13
2.3.2.4. Multikirolaren onurak.....	15
2.4. Gorputz Heziketaren eta Eskola kirolaren arteko lotura.....	16
2.4.1. Agente inplikatuak.....	17
2.4.1.1. Eskola Kiroleko koordinatzailea.....	17
2.4.1.2. Eskola kiroleko monitoreak.....	17
<b>3. HELBURUAK:</b> .....	<b>19</b>
<b>4. METODOLOGIA:</b> .....	<b>21</b>
4.1. Lagina.....	21
4.2. Datu bilketarako tresnak.....	21
4.3. Datu bilketarako prozedura.....	22
4.4. Analisisarako prozedura.....	22
<b>5. EMAITZAK:</b> .....	<b>23</b>
5.1. MONITOREEN INKESTEN EMAITZAK.....	23
5.1.1. Eskola Kiroleko monitoreen informazio orokorra.....	23
5.1.2. Eskola Kirolaren helburuak monitoreen arabera.....	24
5.1.3. Eskola Kirolaren koordinazioa.....	24
5.1.4. Eskola Kirola hezitzailea.....	25
5.1.5. Eskola kirola eta gorputz heziketaren arteko lotura.....	26
5.1.6. Monitoreen formakuntza.....	27
5.1.7. Monitoreen ekarpenak eskola kirola hobetzeko bidean.....	28
5.2. KOORDINATZAILEEN INKESTEN EMAITZAK.....	28
5.2.1. Eskola kiroleko koordinatzaileen informazio orokorra.....	28
5.2.2. Eskola kirolaren helburuak koordinatzaileen arabera.....	29
5.2.3. Eskola Kirolaren koordinazioa.....	30
5.2.4. Eskola Kirola hezitzailea.....	30
5.2.5. Eskola Kirolaren eta Gorputz Heziketaren arteko lotura.....	31
5.2.6. Koordinatzaileen ekarpenak eskola kirola hobetzeko bidean.....	32
<b>6. ONDORIOAK:</b> .....	<b>33</b>
6.1. Eskola Kirolaren eta Gorputz Heziketaren arteko elkarlana.....	33

6.2. Eskola Kirolaren helburuak eta izaera hezitzailea.....	34
6.3. Eskola Kiroleko monitore eta koordinatzaileak.....	35
<b>7. PROPOSAMENA.....</b>	<b>37</b>
<b>8. LANAREN INDARGUNEAK ETA AHULGUNEAK.....</b>	<b>38</b>
<b>9. BIBLIOGRAFIA.....</b>	<b>39</b>
<b>10. ERANSKINAK.....</b>	<b>41</b>

## **LABURPENA**

Geroz eta sedentarioagoa den gizarte batean, haurren bizi estiloa asko aldatu da. Jarduera Fisikoa behar beharrezkoa da ikasleen garapen integrala, eta osasun fisiko eta mentalean dituen onurak bermatzeko. Eskola adinean, Gorputz Heziketa eta Eskola Kirola jarduera fisikoa praktikatzeko eremu erreferenteak dira Euskal Autonomia Erkidegoan. Biek izaera hezitzailea dute, ikasleen garapenean ekarpen positiboa egitea dute helburu; garapen fisikoan, intelektualean, emozionalean eta sozialean. Lan honetan, Eskola Kirola eta Gorputz Heziketak dituzten antzekotasunak eta loturak aztertu dira. Horretarako ikerketa bat burutu dut Eskola Kirolean parte hartzen duten monitore eta koordinatzaileen artean. Ikerketa hau bi galdetegiren bitartez burutu dut, metodologia kuantitatibo eta kualitatiboak baliatuz. Emaizak erakutsi dutenez, Eskola Kirolaren eta Gorputz Heziketaren artean: helburuei dagokionez, lotura handia dago, baina errealitatean ez dago koordinazio edo elkarlan handirik bi eremuen artean; eta Eskola Kirolaren helburua hezitzailea dela argi geratu bada ere, helburu hezitzaile hau bermatzeko baliabideak falta direla.

Hitz gakoak: Gorputz Heziketa, Eskola Kirola, garapen integrala, Eskola Kirol hezitzailea, Eskola Kiroleko monitoreak, Eskola Kiroleko koordinatzaileak

## **ABSTRACT**

In an increasingly sedentary society, the lifestyle of children has changed greatly. Physical activity is necessary to ensure the comprehensive development of students and their benefits to their physical and mental health. At school age, physical education and school sport are the reference areas for the practice of physical activity in the Autonomous Community of the Basque Country. Both of them have an educational character, and are intended to contribute positively to the development of students; to physical, intellectual, emotional and social development. In this work the similarities and connections of school sport and physical education have been studied. To this end, I have conducted a study among the monitors and coordinators involved in school sport. I've done this research through two questionnaires, using quantitative and qualitative methodologies. The results have shown that there is a strong link between School Sport and Physical Education in terms of objectives, but in reality there is little coordination or collaboration between the two areas; and although it has become clear that the objective of School Sport is educational, there is a lack of resources to ensure this educational objective.

Key words: Physical Education, School Sport, integral development, educational School Sport, School Sport monitors, School Sport coordinators.

## **1. SARRERA**

Gaur egun, argi dakigu Hezkuntzak gizartean duen garrantzia, eskola gizartearen isla da eta aldi berean, gizartea eraldatzeko eta aurrera pausuak emateko dugun baliabide garrantzitsuenetako bat da. Gizarte sedentario batean, presio akademikoak, eskolaz kanpoko jardueren hazkundeak, aisialdirako edo jolas librerako denbora eta espazio faltak, teknologia berrien erabilerak eta garraio eredu modernoak, gaur egungo haur eta nerabeen bizi estiloa aktiboa izatetik urruntzen dute.

Arlo motorra lehen mailako faktorea da pertsonaren garapen integral eta orekatuan, eta garrantzi berezia hartzen du adin goiztiarretan (Piaget, 1985). Jarduera fisikoari esker, arlo sozialari dagokionez, haurrek gaitasun eta ezaugarri ugari garatzen dituzte, hala nola; lankidetzak, komunikazioa, lidergoa, diziplina eta talde-lana. Beste aldetik, jarduera fisikoak gizarte-arazo larriak prebenitu, tratatu eta birgaitzeko aukera ematen du (Rodríguez, 2020). Eskola-etapan, gorputz- eta kirol-jarduerarako erreferentzia-eremuak Gorputz Hezkuntza (GH) eta Eskola Kirola (EK) dira, bata curriculum-mailakoa eta bestea curriculum-kanpokoak. Alegia, biek erantzuten diete hezkuntza helburuei, ikasleen garapena eta ongizatea, errendimenduaren edo lehiaketaren aurretik jarriz (González, García, Contreras, eta Sánchez Mora, 2009). Beraz, inplementatu beharreko baliabide didaktikoek ere lortu nahi diren helburuekin bat etorri behar dute (Posso, Ortiz, Paz, Marcillo, eta Arufe, 2022).

GHko irakasle bezala beharrezkoa iruditzen zait EKren izaera hezitzaile hau babestea eta GHren osagarria den jarduera bezala planteatzea. Eskola Kirola modu hezitzailean planteatuz gero, ikasleak balioetan hezteko eta kirol desberdinen hastapena parte hartzaile eta egokia izateko aukera paregabea da, haurren garapen integrala helburu edukiz. Horretarako ikasleen garapenaren arduradunak diren monitoreak alderdi teknikoak irakasteko prestatuta egoteaz gain, ikasleen garapen afektibo, emozional eta sozialari erantzuteko prestatuta egotea beharrezkotzat ikusten da (Fraile et al. 2011). Eta aldi berean, koordinatzaileak, eskola-kirolaren helburu hezitzailea behar bezala betetzen dela bermatzen duen figura izatea (Monteagudo et al. 2014).

Lan honen helburu nagusia, Eskola Kirolaren eta Gorputz Heziketaren arteko elkarlana hobetzea da, eta horretarako Eskola Kirolean inplikaturik dauden monitore eta koordinatzaileen artean ikerketa bat egin da. EKko 33 monitorek eta 7 koordinatzailek, galdetegi baten bitartez haien iritzia eman dute EKren inguruan eta honek GHrekin duen loturari buruz.

## **2. MARKO TEORIKOA**

Marko teorikoa lau ataletan banatu da: 2.1) *Osasuna eta Jarduera fisikoa eskola adinean*. Atala honetan, eskola adineko haurren garapenean jarduera fisikoak dituen onurak azpimarratzen dira; 2.2) *Garapen motorra, kompetentzia motorra*. Hemen, kompetentzia motorra zer den eta ikasleen garapen integralean nola eragiten duen aztertzen da; 3.3) *Praktika motorreko eremu arautuak*. GH eta EKren errealitatea eta legeak aztertzen diren atala; 2.4) *Gorputz Heziketaren eta Eskola Kirolaren arteko lotura*. Non bi eremu hauen arteko lotura eta Ekan inplikaturiko agenteak azaltzen diren.

### **2.1. Osasuna eta jarduera fisikoa eskola adinean**

Munduko Osasunaren Erakundeak (MOE), 2020 urtean, jarduera fisikoaren eta sedentarismoaren inguruko zenbait gomendio eman zituen. Hauen artean, eskola adinean dauden ikasleei bideratutakoak hauek ziren: jarduera sedentarioei emandako denbora mugatzea eta horiek jarduera fisiko batekin ordezkatzea. 5 eta 17 urte bitarteko nerabeen kasuan, astean zehar, batez beste, egunean 60 minutu eman beharko lituzkete jarduera fisiko moderatuetan, batez ere aerobikoetan. Astean hiru egunetan gutxienez, jarduera aerobiko biziak izan beharko lituzkete, baita giharrak eta hezurak indartzen dituztenak ere. Eta jarduera sedentarioetan emandako denbora mugatu behako lukete bereziki pantaila baten aurrean igarotzen duten aisialdia.

Jarduera fisikoak onura asko eragiten ditu pertsonen osasunean eta ongizatean, onura hauek 3 multzotan banatu ditzakegu; sozialak, fisikoak eta emozionalak. Rodriguezek (2020) jarduera fisikoak ikasleengan duen efektua ikertzen du, honen arabera, arlo sozialari dagokionez, haurrek gaitasun eta ezaugarri ugari garatzen dituzte, hala nola; lankidetzak, komunikazioa, lidergoa, diziplina eta talde-lana. Beste aldetik, jarduera fisikoak gizarte-arazo larriak prebenitu, tratatu eta birgaitzeko aukera ematen du.

Arlo fisikoaren kasuan, jarduera fisikoak, globulu gorriek oxigenoa xurgatzeko duten gaitasuna handitzen laguntzen du, funtzio muskularra, birikietakoa, bihotzekoa eta garuneko hobetuz. Pertzepzio espazialean, koordinazio motorrean, orekan eta hazkunde-prozesuan ere eragina dauka eta gaitasun hauek garatzen laguntzen du. Sistema kardiobaskularraren, muskulu-sistemaren eta eskeletikoaren garapenean eragiten du; beraz, gaixotasunei lotutako arrisku-faktoreen murrizketa sustatzen du; adibidez, gaixotasun kardiobaskularrak, 2. motako diabetesa edo hipertentsioa ekiditen lagundu dezake.

Azkenik, arlo emozionalean, antsietatearen eta estresaren murrizketan eragin dezake, baita insomnioaren prebentzioan eta sendagaien kontsumoan ere. Era berean, depresioa murrizteko eta autoestimua, kontzentrazio-gaitasuna, memoria eta funtzio kognitiboa hobetzen laguntzeko duen gaitasuna aitortzen dute hainbat autorek. Egindako azterlanen arabera, jarduera fisikoa egiten duten haur eta nerabeek eskola-jarduera hobea erakusten dute, eta trebetasun eta funtzio kognitiboen garapen-maila handia. Narritadura, agresibitatea eta kitzikagarritasun egoerak hobetzen dituen efektu antsiolitikoa du eta autonomian eta autoestimuan ere onurak izan ditzake (Sánchez, 2011).

## **2.2. Garapen motorra, kompetentzia motorra**

Ikasleen garapenari dagokionez, arlo motorra lehen mailako faktorea da pertsonaren garapen integral eta orekatuan, eta garrantzi berezia hartzen du adin goiztiarretan (Piaget, 1985), aurkitzeko eta ingurunearekin erlazionatzeko aukerak baldintzatzen baititu, eta, horrekin batera, haren garapena eta ikaskuntza (Acouturier, 2004; Le Boulch, 1987). Gallahue et al. (2006) ikerlariak zehaztu zuten bezala, garapen motorra etapa desberdinetan dago banatuta, jaiotzen garenetik, nerabeak garen arte eta gure bizitza osoan zehar. Erreflexuetatik gaitasun motor espezifikotara doa garapen hau, eta lehen hezkuntzako etapa, mugimen gaitasun eta trebetasunak garatzeko garai egokia da.

Kompetentzia motorra modu globalean jardutean datza, mugimen gaitasunez gain, gaitasun mota guztiak bermatuz, planteatutako arazo motorrari eraginkortasunez erantzuteko. Horretarako, irakasleak planteatzen dituen jarduerak ikasleei modu autonomoan aritzeko aukera eman behar diete. Hala ere, kompetentzia honek ez du beti garrantzi bera izan. Adibidez, curriculumean, LOMCEren argitalpenarekin, 2013. urtean, kompetentzia motorraren kontzeptua lehenengo aldiz agertu zen. Gaur egun, LOMLOE (2021) legean, kompetentzia motorra Akzio Motorreko Domeinuetan (AMD) oinarritzen da, horiek umeei eskaini beharreko agertoki eta arazo motorrak izanik.

Ildo beretik jarraituz, kompetentzia motor aberasgarria bermatzeko, mota ezberdinetako jokaera motorrak irakatsi behar dira; Heziketa Fisikoa baita jokaera motorraren pedagogia. Era berean, jokaera motorra arazo motor bati eraginkortasunez erantzuna emateko modu global bat da, non gaitasun fisiko-motorrak inpliketzen diren; horien artean, mugimen-trebetasunak (jauziak, saltoak, lekualdatzeak, birak eta abar), gaitasun koordinatiboak (Koordinazio Dinamiko Orokorra, Espazio/Denbora Egituraketa eta oreka) eta gaitasun taktiko-estrategikoak aurki ditzakegu. Horretaz gainera, hiru elementu aintzat hartu behar dira; zehazki, harremanak, kognizioa eta emozioak.

Konpetentzia motorraren kontzeptua bere osotasunean ulertzeko, ezin da egoera motorra ahaztu; izan ere, motrizitatea inplikatzeko duten egoerak proposatu behar dira, mugimendua behar da, gaitasun eta trebetasun motorrak martxan jartzeko. Gainera, motrizitate horrek arazo motorra ebazteko bidea izan behar du. Honela, ikasleek irakasleak proposatzen dien arazo motorra, erronka, mugimenduaren bitartez lortu beharko dute ebaztea.

Aldi berean, egoera horiek askotarikoak izan behar dute, eta zentzuzko testuinguruarekin lotura bat ere. Aipatzekoa ere bada, hauek bi motatakoak izan daitezkeela: psikomotorrak eta sozomotorrak (aurkaritzakoak, taldekidetzakoak eta taldekidetzeta-aurkaritzakoak). Agertoki hauek dira Akzio Motorreko Domeinuak (AMD), haien ezaugarrietan oinarriturik sortutako egoera motorren multzoak. Sozomotorretan, aurkaritzakoak, lankidetzakoak eta aurkaritza-lankidetzakoak desberdintzen dira, eta beste aldetik, natura-jarduerak eta Gorputz Adierazpenekoak ditugu.

### **2.3. Praktika motorreko eremu arautuak**

Gorputz Heziketa, motrizitatea lantzeko eremuen artean, haur eta nerabeen ehuneko ehuna barne biltzen duen praktika eremua da. Praktika-eremutzat hartzen diren testuinguruak, mugimendu-egoerek jarduerari esleitutako funtzio bera duten parte-hartzaileak biltzen dituen gizarte-testuinguruak dira (Martínez-Santos, 2007). Motrizitatearen garapena dakarten praktika-esparruek oso errealitate desberdinak hartzen dituzte, joko asketik hasi eta errendimendu-entrenamenduraino. Horien artean, arau-izaerako praktikak arau juridikoetan oinarritzen direnak dira, curriculumekoak edo curriculumetik kanpokoak izan daitezkeenak, horien erregulazioa derrigorrezko irakaskuntzaren zehaztapen-mailetakoa baten arabera den ala ez kontuan hartuta. Baldintza horien menpean aurkezten dira Gorputz Hezikuntza, curriculum-mailakoa, eta Eskola Kirola, curriculumetik kanpokoak, eskola-etapako gorputz- eta kirol-jarduerarako erreferentzia-eremu gisa, biak ere hezikuntza-helburuei erantzuten dietenak (González, García, Contreras, eta Sánchez Mora, 2009).

#### **2.3.1. Heziketa Fisikoa**

Heziketa Fisikoa praktika motorreko eremu arautu eta kurrikularrean kokatzen da, zenbait irizpidez eta helburuz definitua dagoena. Hortaz, GH haurren 100%era iristen da, gehiengoaren kasuan garapen motorra bermatu dezaken testuinguru edo agertoki bakarria izanik. Azken urteetan izandako hausnarketen ondorioz, Heziketa Fisikoa jokabide motorren



heziketa bezala definitu eta garatu da; ezagutza zientifikoan oinarritzen den esku-hartze praktika bat bezala definitzearen aldeko apustua eginez. Paradigma parte-hartzaile batean kokatuz, bertan ikasleen parte-hartzea eta, jarduera fisikoaz gozatzeaz gain, ikasleen garapen integralean ekarpena egitea dira helburu nagusiak, ongizatea zein gizarteratze osasuntsua lortzeko (Fort-Vanmeerhaeghe et al., 2017).

Horrek, begirada mugimendutik eta kirol-teknika zehatzetatik baztertu eta jardunean ari den pertsonarengan jartzera eramán du, pertsonen dimentsio ezberdinak kontuan hartuz: kognitiboa, afektibo-emozionala, sozial-erlazionala eta, nola ez, motorra; hau guztia ikuspuntu zientifikoki batetik, praxiologia motorra oinarri hartuta hain zuzen ere. Izan ere motrizitateak ikasleen garapen integrala du helburu. Garapen egoki bat bermatzeko, dimentsio guztien arteko oreka egon beharko litzateke. Konpetentzia motorrak landuz, trebetasun espezifikokoak garatuz joan behar dira hain zuzen ere, fisikoki aktiboagoak izateko eta jarduera fisikoa praktikatzeko (Fort-Vanmeerhaeghe et al., 2017).

Eduki kurrikularraren garapenari erreparatzen badiogu, Heziketa Fisikoak izan duen eboluzioa aztertu dezakegu. Arlo motorraren esku-hartzea orientatzeko, bi modu edo paradigma izan ditugu, errendimenduarena eta parte hartzearena. Errendimenduaren diskurtsoan oinarritutako esku-hartzearen helburua ikasleen errendimendua handitzea edota hobetzea da; hau da, errendimendua hobetzeko metodo gisa erabiltzen da paradigma hau (Tinning, 1986). Hori horrela izanik, paradigma honi lotutako esku-hartze teknikoan, defendatzen da, ikasleak errendimenduari begira hezi behar direla; eta, era berean, Heziketa Fisikoaren kalitatea igo behar dela, irakasgaia energia-gastu hutsarekin lotuz. Bestetik, lehen aipatu bezala, paradigma parte-hartzailean, ikasleen parte-hartzea, jarduera fisikoaz gozatzea eta ikasleen garapen integralean ekarpena egitea dira helburu nagusiak, ongizatea zein gizarteratze osasuntsua lortzeko (Fort-Vanmeerhaeghe et al., 2017).

Eduki kurrikularrari erreparatuz, 1982ko OHO legean aurkitu dezakegu lehenik Heziketa Fisikoa, garai hartan errendimenduaren diskurtsoan kokatzen zen. Hamarkada honetan trebetasun gimnastikoak eta beste kirol-teknikak (gaitasun kualitatiboak) gailendu ziren, eta hauekin batera egokitzapen fisikoa (gaitasun kuantitatiboak) ere sartuz joan zen. Soilik kirol bat lantzea zen, eta irakaslearen figura autoritarioa eta "militarista" izatera ohituak zeuden ikasleak. 1990ko LOGSE legearekin ikuspegi konstruktibista berritzaile bat sortu zen, honen helburua ikasleak bere ezagupenak eraikitzea izanik. Helburuak aldatu arren, errendimenduaren paradigmán oinarritzen zenez, hamarkada honetan ez zen aurrerapen

handirik eman metodologiari dagokionez. Eduki berri bezala gorputz adierazpeneko jarduerak eta natur jarduerak azaldu ziren, eta egokitzapen fisikoaren edukiari osasunaren ikuspegia txertatu zitzaion.

2006. urteko LOE legearekin paradigma aldaketa gauzatzen hasi zen, errendimendaren paradigmatik, paradigma parte hartzailera, planteamendu hezigarriago batekin. Parte-hartzearen diskurtsoaren xedea mugimenduaren kulturaren partaidetza areagotzea da, parte-hartze horretatik erator daitezkeen balio terapeutiko eta hezitzaile guztiekin (Tinning, 1986). Horri lotuta, esku-hartze humanista aurkituko litzateke; Heziketa Fisikoak, errendimenduan oinarritutako paradigma instruktiboa alde batera utziz, ikasleen garapen integrala bermatu beharra duelako. Ikasgaiaren helburua ikaslearen garapen integralean aportazioa egitea bihurtu zen, baina edukiak ez ziren aldatu. Gaur egun hain garrantzitsua den konpetentzia motorra 2014ko LOMCE legearekin iritsi zen, garai honetan konpetentzia motorraren garapena bihurtu zen HFaren helburu nagusia, jokaera motorrak irakastea, ikaslearen portaera globala kontuan hartuz, trebetasun hutsak eta ikaslearen portaera mugatua alde batera utziz. Eduki-blokeek alegia berdinak izaten jarraitzen dute: gaitasun koordinatiboak, kultura motorra (joko/jolasak, kirolak eta abar), Gorputz adierazpena eta osasuna (gaitasun kuantitatiboak). Azkenik, 2021eko LOMLOE legean edukiak aurretik aipatu ditugun Akzio Motorren Domeinuetan oinarritzen dira, hauek eskaini beharreko agertokiak eta arazo motor mota ezberdinak izanik.

Euskal autonomia erkidegoaren kasuan, Gorputz Heziketa 2015eko 236 Dekretuak arautua dago, honen arabera, ikasgaiaren helburu nagusia ikaslearen konpetentzia motorraren garapena da, honen garapen integralerako eta bizi estilo osasuntsua sustatzeko (Decreto 236/2015, p. 97). Eskola Kirola 2008ko 125 Dekretuak arautua dago, eta helburua parte hartzen duen haurraren hezkuntza-garapenaosatzea da, eta, aldi berean, kirolari bakoitzaren banakako beharrak asetzea, ikasleen prestakuntza integralera bideratuta (125/2008 Dekretua, p. 2).

### **2.3.2. Eskola Kirola**

#### **2.3.2.1. EAEn**

Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legeak kirol sistema osoaren atal giltzarrietako bat aztertzen du bere V. tituluaren eskolako kirola. Lege horretako 53. artikuluan, Eskola Kirola "ikasleek nahitaezko eskolatze-aldian irakas-orduetatik kanpo egiten duten kirol jarduerara antolatua" bezala definitzen da (Ortuzar, 2006). Kirol adierazpide hori funts-funtsezkoa da eskola-umeen heziketa integralari begira, haien nortasuna era

armoniatsuan garatzeari begira eta geroko adinetan ere kirola modu jarraituan egin ahal izatea bermatuko duten baldintza fisiko eta prestakuntzari begira (125/2008 Dekretua)

Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legea onartu zen. Bertan esaten denez, Hurrek eta nerabeek eskubidea dute kirolak eta jarduera fisikoak egiteko, eta saihestu egin behar da jarduera horietan lehiakortasuna lehenbiziko balioztat sustatzea. Gainera, Legeak dioenez, lehiaketa-kiroletan parte hartzea borondatezkoa izan beharko da, beti, eta entrenamendu plan eta metodoek errespetatu egin beharko dituzte haien egoera fisikoa eta hezkuntza-beharrizanak. Legearen 35. artikuluan, halaber, xedatzen da ezen herri-administrazioek, beren eskumenen esparruan, haur eta nerabeen jardueren edukia indartzeko betebeharra dutela.

Eskola Kirolaren helburu nagusiak, aurretik aipatutako legean zehazten dira, izan ere, 55.artikuluan Eskola Kirolari buruzko programak eskola-heziketa integrala osatzera, nortasuna modu orekatu batean garatzera, gorputz eta osasun ezaugarri jakin batzuk lortzera eta geroago kirola egiten jarraitzea posible egingo duen prestakuntzara bideratuta egon behar direla irakur daiteke (Monteagudo et al., 2014).

Beraz, Eskola kirolaren helburu nagusia haur kirol-egilearen hezkuntza-garapena osatzea izango da, bai eta kirolari bakoitzaren banakako beharrizanak asebetetzea ere (3/2005 Legea)

### **2.3.2.2. Gipuzkoan**

Askatasun-tarte zabala uzten zaie Foru Aldundiei programak lantzeko eta gauzatzeko (125/2008 Dekretua). Gipuzkoar eskualdean, ugari dira martxan dauden eskola kiroleko proiektuak. Urtero, Foru Aldundiak, eskolekin, udaletxeekin, federazioekin eta Kirol klubekin, 6 eta 16 urte bitarteko haur eta gazteentzako **ESKOLA KIROLEKO JARDUEREN PROGRAMA** jartzen du martxan.

*KG/2022/0033 Foru Aginduak* arautzen du aurtengo Eskola Kirola, honen arabera, Eskola Kiroleko eragileek egindako hausnarketa prozesuari jarraipena emanez, ikastetxea mota honetako jarduerak aurrera eramateko testuinguru egokiena dela aitortzen du. Eskola kiroleko programa tresna bat gehiago izanez ikastetxearen helburu hezitzaileak lortzeko. Zehazki, multikirola programa (ikastetxearen eskaintza parte hartzeko lehiaketa ibilbidean), testuinguru egokia baita eskolaume guztiei kirol praktikarako sarbidea modu partehartzaile eta ekitatiboan bermatzeko (*KG-2022-0033 Foru Agindua, ekainaren 30ekoa, 2022- 2023 ikasturteko eskola kiroleko jardueren programa onesten duena*).

Eskola Kiroleko jardueren programa honen barnean, zenbait ibilbide aurkitu ditzakegu, *Parte hartzearen ibilbidea, Errendimendua hasteko ibilbidea eta Talentudunak eta etorkizuneko kirolariak identifikatzeko ibilbidea*. Eskola Kirola, Parte Hartzearen ibilbidean kokatzen da, eta adinaren arabera, benjamin-aurrekoak, benjaminak eta alebinak bereizten dira Lehen Hezkuntzako etapan, ondoren haurrak kurtsoka banatuz lehenengo mailatik seigarrenera. (KG-2022-0033 *Foru Agindua*)

Benjamin aurreko adinetan, lehen eta bigarren mailan, Hastapeneko jarduerak burutzen dituzte ikasleek, ez baitago lehiaketarik. Jarduera hauek hiru sailetan bereizten dira; onurakoak, eguneroko bizitzarako baliogarriak direnak, jolasekoak, jarduera fisikoa egiteko aukera ematen dietenak, eta kirol xedekoak, ohikoak ez diren kirolak sustatzaen dituztenak. Benjamin eta alebin adinetan, iada eskolen arteko Parte hartzeko lehiaketak hasten dira, hauek ikasleei modu hezigarrian jarduera fisikoaren bitartez parte hartzeko eta lehiatzeko aukera ematen diete. Lehiaketak eskualde desberdinetan banatzen dira, Gipuzkoan; Bidasoa, Oarsoaldea, Donostia, Donostialdea, Kosta, Urola, Debarrena, Debagoiena, Goierri Garaia, Goierri Behea eta Tolosaldean. (KG-2022-0033 *Foru Agindua*)

Ikasleek astean 2 saio izaten dituzte benjamin eta alebinak direnean, benjamin-aurrekoetan, 1 edo 2 izan ditzakete eskolaren arabera. Benjaminak direnean, ikasleak Kirol Klubetako hastapen saioetara joateko aukera dute, Eskola Kiroleko osagarriak izanik. Araudiaren arabera, Kirol Klubetako jardueretan parte hartzeko beharrezkoa dute ikasleek haien ikastetxeetako EKeko jardueretan parte hartzea, hauetan bi saio eginez. Arau honek alebinetako bigarren urterarte irauten du, non ikasleek, errendimenduko lehiaketak direla eta, haien ikastetxeko EKeko saio bat galdu dezaketen klubetako entrenamenduetara joateko. (KG-2022-0033 *Foru Agindua*)

Honetaz gain, Foru aginduak dioenez, larunbat goizetan dira ikastetxeen arteko jardunaldiak, eta egutegiko jardunaldi kopurua gehienez 28koa da. Jardunaldiak kirolen arabera izaten dira eta ikasturtean zehar egiten diren kirol kopurua Eskola Kiroleko proiektuaren arabera da. Donostian badira proiektu desberdinak; ohikoenean benjaminetan hiru kirol egiten dira, adibidez, hockeya, saskibaloia eta futbola (eskaintza zabalagoa izanik), eta tarteka jardunaldi bereziak izaten dituzte igeriketa, atletismoa edo esku pelota bezala. Alebinetan bi kirolen erabaki behar dituzte ikasleek aukera desberdinen artean, urte erdia kirol bat egiteko eta beste erdian bestea. Hala ere, badira E2 bezaelako proiektu berritzaileak non eskola desberdinak batu diren, ikasleei Eskola Kiroleko eskaintza zabalago bat eskaintzeko, kirol gehiago egiteko aukera eskainiz 3., 4., eta 5. mailan.

### 2.3.2.3. Eskola Kirolaren onurak

Aurretik aipatu bezala, Eskola Kirolak, praktika motorreko eremu arautu gisa gaitasun hezitzailea dauka (Monteagudo et al., 2014). Beraz hainbat ekarpen egin ditzake parte hartzen duten haurrengan; Lopez de Abetxukok (2021) garapen integralari egiten dion ekarpena, balioetan heztean, genero ikuspegia eta Euskararen erabileran izan dezakeen ekarpena azpimarratzen ditu.

Hasieran aipatutakoa errepikatuz, Jarduera Fisikoak, bai Gorputz Heziketaren edota Eskola Kirolaren testuinguruan, ikasleen garapen integrala indartzen du. Konpetentzia motorraren landuz arlo fisikoaz gain, kognitiboa, soziala eta emozionala garatuz (Rodriguez, 2020).

Kirol jarduerak nolabaiteko onurak eragiten dituela, baliotan hezteko lanabes baliagarria dela gizartean erruz sustraitutako mezua dugu. Autore ugari horrela aldarrikatu dute gainera (Diaz et al., 1999; Torregrosa y Martin, 2000; Maza, 2001; Prat i Grau, 2001; Carranza y Mora, 2003; Gutierrez, 2003 in Zulaika, 2006).

Zulaikak (2006) horrela zerrendatzen ditu balio hauek:

---

- Kiroltasuna, joko-garbia	- Errespetua
- Taldelana, lankidetzatza	- Hierarkia printzipioa onartu
- Talde interesak norberarenean aurretik ipintzea	- Ardura
- Hobetze sena	- Kode etikoa
- Esfortzuaren kultura	- Sariak gerorako uzteko ahalmena
- Borondatea, kemena	- Emaizak onartzen ikasi
- Autodiziplina	- Bizitzarako eskola
- Autokontrola	- Frustraziorako tolerantzia handitu

---

Edozein kirol jarduera ez da beti hezitzailea, hau da, irizpide, ikuspegi eta helburuek baldintzatuko dute parte hartzaileek jasoko dituzten balioak. Berez, gaitasun hezitzaile potentzial hain handia duen jarduera honek baditu praktikan gaintitu beharreko hainbat arrisku eta aldagai kaltegarri (Zulaika, 2006):

- 
- |                             |                      |
|-----------------------------|----------------------|
| - Gehiegizko lehiakortasuna | - Helburu desegokiak |
|-----------------------------|----------------------|

- Inguruneko gehiegizko presioa
- Konparaketa soziala
- Espezializazio goiztiarra
- Aukeratze prozesuak

Genero ikuspegiari dagokionez, Eskola Kirolaren bilakaera erreparatuz, aurrerapen positiboak eman dira. Alegia, nesken parte-hartzea asko areagotu da (Montegudo et al.,2014). Halaber, arlo honetan hausnarketa egin duten eta esperientzia duten adituek aho batez azaldu dute kirolean nesken jabe-kuntzarako espazioak sortzeko beharra, batez ere taldeko kirolean. Beraz, eskola kirola testuinguru ezin hobea da horretarako (Azurmendi, 2017)

Asko hazi dira ere eskola kiroleko talde mixtoak (Monteagudo et al., 2014). Eskola kirolean nesken partaidetza areagotze aldera, eredu mixto honen alde daudenak eta kontrakoak ikusi ditzakegu gipuzkoar eskualdean. Eredu mixtoak erreparatuz, eta hauetan nesken parte hartzea aztertuz, Azurmendik, gaur egun, eredu banatu baten aldeko apostua egiten du. Etorkizunean ,eredu mixtoak aukera berdintasuna eta parte hartze orekatua bermatuko duelaren esperantzarekin (Azurmendi, 2017).

Eskola Kirolean, ikasleak eta monitoreak etengabeko harremanean daude, haien artean komunikatuz, beraz hizkuntzak izugarritzko garrantzia hartzen du jarduera fisikoa eta talde kirolak lantzen diren esparru honetan. 2021ean, Eusko Jaurlaritzak, *Kirolean harremanak euskaraz ematea sustatzeko 2021-2024 urteetarako plana* aurkeztu zuen. Honen helburua, 18 urte bitarteko gazteen euskararen erabileran eragitea da, honetarako monitoreen eta entrenatzaileen formakuntza sustatuz.

Kirola eta jarduera fisikoa, eskola eta kalearen arteko zubia da, beraz kirolak ikastean erabiltzen den hizkuntzak ikasleen kaleko hizkuntzan eragina izango du. Hein handi batean, EAEn gaztelera da nagusi ikasleen artean eskolaz kanpo eta talde kirol famatuenak, futbola bezala, gaztelerekin lotzen dira. Beraz Eskola Kirola eta baita Gorputz Heziketa ikasleak euskaraz hezteko eta euskeraz aritzeko ohitura bereganatzeko testuinguru egokiak dira (Kirolean harremanak euskaraz ematea sustatzeko 2021-2024 urteetarako plana, 2021).

#### **2.3.2.4. Multikirolaren onurak**

Monteagudoren (2014) arabera, azken urteetan Eskola Kirolean egon den aurrera pausu garrantzitsuenetako bat, multikirolaren implementazioa izan da. Multikirolak edo kirol-ibilbide berriak sartzeak, ikasleek beren kultura motorra lehiaketatik kanpoko eszenatoki berrietan garatzeko aukera izan dezaten ahalbidetu die. Jarduera Fisikoaren eta

osasunaren sustapenerako baliabide edo tresna nagusi bezala kokatuz. (Monteagudo et al. 2014)

Kirol modalitate desberdinak probatzea oso interesgarria da haurrentzat, kirol bakoitzak eskaintzen dituen aukerak ikusi eta eremu bakoitzean dituzten gaitasun eta trebetasunak ezagutzeko. Honetaz gain, multikirolean, lehiakortasunaren aurrean izaera parte-hartzailearen nagusitasuna, jarduera guztien izaera mistoa eta naturarekin harremanetan egotea bezalako ezaugarri espezifikoak nabarmendu daitezke (Monteagudo et al., 2014).

Especializazio goiztiarra ekiditea onuragarria da banakoaren garapen integralerako, eta multikirolak hau ekidin dezake. Ahalik eta kirol gehienak egin behar dira, aniztasuna haurrentzat mesedegarria izango delako. Izan ere, kirol desberdinekin atal desberdinak lantzen dira, motrizitate fina, lodia, oreka, mugikortasuna, koordinazioa... Baina aniztasun hori, ikuspegi psikologiko eta sozialetik ere onuragarria da. Haurrak kirol bat aukeratzen duenean ez du soilik kirol bat aukeratzen, testuinguru bat eta talde giro bat ere aukeratzen ditu. Hori horrela izanik, gero eta kirol gehiago egitean zirkuluak handitzen dira eta zirkulu handitze horrek izaera eta balio diferentek dituzten erreferente gehiago izatea ahalbidetzen du (Agirre et al., 2013b).

#### **2.4. Gorputz Heziketaren eta Eskola kirolaren arteko lotura**

Praktika motorreko eremu arautuan, Gorputz Hezkuntza, curriculum-izaerakoa, eta Eskola Kirola, curriculumetik kanpokoa, eskola-etapako gorputz- eta kirol-praktikarako erreferentzia-eremu gisa ditugu. Biek ala biek, hezkuntza-helburuei erantzuten diete: parte hartzen duen haurren hezkuntza-garapena osatzea, garapen kognitiboa, afektibo-emozionala, sozial-erlazionala eta motorra kontuan izanik (González, García, Contreras, eta Sánchez Mora, 2009). Hezkuntza-helburuak alde batera utzita, legediari erreparatuz, garatu beharreko eduki pedagogiko berak dituzte bi eremu hauek: kirolen hastapena, jarduera psikomotorrak eta jarduera psikosozialak besteak beste. Eta inplementatu beharreko baliabide didaktikoek ere lortu nahi diren helburuekin bat etorri behar dute (Posso, Ortiz, Paz, Marcillo, eta Arufe, 2022).

Errealitateari erreparatuz, Eskola Kirola eta Gorputz Heziketaren arteko bereizketa nabaria ikus dezakegu. Bereizketa hau hiru alderditan banatzen du Ortuzarrek (2006); ordutegian, ideologian eta baita pertsonetan. Ideologiaren alderdian, EKren programaketa falta, errendimenduaren helburua eta curriculumarekin duen lotura falta azpimarratu ditzakegu. Pertsonen dagokionez, eskolako irakasle eta zuzendaritzak, ez dira eskola

kiroleko langile, monitore eta koordinatzaileekin kontaktuan egoten, eskola orduz kanpoko ekintza honengan duten arduratik aldenduz.

Zalantza hori Kirolaren Euskal Planean jasotzen da, eskola-kirola IHPetan integratzeko lehentasunezko ekintzat hartzen baitu, bai eta ikastetxeen Ikastetxearen Urteko Planean ere. Eta, egia esan, ekintza gutxik sortzen dute adostasun hain ahobatezkoa, argitalpen, kongresu eta foro askotan berretsia, hala nola ikastetxe batean sortzen den kirol- eta hezkuntza-jarduera guztia arlo komun batean bateratzea, hezitzaile guztiak koordinazio beraren menpean, ikastetxeko zuzendaritzak gidatuta eta helburu komunekin (Ortuzar, 2006)

Gaur egungo curriculumaren planteamenduak jokabide motorren inplikazioa errazten du (eta, horiekin batera, mugimenduaren gaitasunak), ekintza-eremu bakoitzaren berezitasunak lantzen baitira, ezagutza motor handiagoa eta, azken batean, gaitasun motorren garapen osatuagoa ahalbidetuz (Pacheco, 2011). Eskola Kirolak, ahalko luke planteamendu hau baliatu, ekintza-eremu bakoitzaren praktika motorrak barne hartzen dituen eskaintza bat sortuz, aniztasuna eta oreka bermatzeko (Larraz, 2009).

#### **2.4.1. Agente inplikatuak**

Eskola kiroleko arduradunei erreparatzen badiegu, hainbat agente inplikatzeko dituela esan dezakegu; instituzioak, zentroetako zuzendaritzak, Gorputz Heziketako eta bestelako irakasleak, Familia eta Guraso elkarteak eta azkenik eskola kiroleko langileak (Ortuzar, 2006). Ikastetxeek eginkizun nagusia bete beharko lukete eskola-kirolaren garapenean, gaur egun beti betetzen ez dutena. Ikastetxe bakoitzak jarrera desberdina hartzen du eskola-kirolaren aurrean, zuzendaritza-taldeak eremu horretan dituen aukeren, baliabideen edo interesaren arabera. (Monteagudo, 2014)

##### **2.4.1.1. Eskola Kiroleko koordinatzailea**

Ikastetxeetako Eskola Kiroleko Koordinatzailearen figuraren garrantzia ukazina da; izan ere, hainbat mailatan, eskola-kirola dinamizatzeko, orientatzeko eta gainbegiratzeko ardura hartu behar du bere gain, proposatutako helburuak lortzeko beharrezkoak diren ezaugarriengatik. Ikuspegi horretatik, garrantzitsua dirudi eskola-kirolaz arduratzen diren eragileen katean gutxienez bi koordinazio-figura izatea: ikastetxeko kirol-koordinatzailea eta udal-koordinazioaren figura, ikastetxeek eskola-kirolaren arloan egiten duten lana dinamizatzeaz eta ikastetxe horietan parte hartzea sustatzeaz arduratzen da, eskola-kirolaren lehentasunezko helburuak behar bezala betetzen direla zainduz. (Monteagudo et al. 2014)



Eskola-kirola gorputz-hezkuntza luzatzen eta osatzen duen kirol-hezkuntza gisa ulertuta, irakasgai honetako irakasleak funtsezko inplikazioa eduki beharko luke honen sustapenean (Devis, 1995). Orduan, gorputz-hezkuntzako irakasleak dira, egoera ezin hobean, ikastetxeetan eskola-kirola koordinatzeko eta dinamizatzeko zeregina beren gain har dezaketenak eta hartu beharko luketenak. Teorian, gorputz-hezkuntzako irakasleen funtzioek, eskola-orduetatik kanpoko kirol jarduerak koordinatzea barne hartzen dute. Hala ere, gorputz-hezkuntzako irakasleen eskutik ikastetxeetan eskola-kirolaren koordinatzailearen figura normalizatzeko eta arautzeko aukera dagoela pentsarazten duen aldaketarik ez da eman azken urteetan. Horren ondorioz, Gorputz Hezkuntzaren eta Eskola Kirolaren arteko koordinaziorik eza nagusi da (Monteagudo et. al 2014)

#### **2.4.1.2. Eskola kiroleko monitoreak**

Eskola-kirolaren testuinguruan kokatzen garenean, entrenatzailea edo begiralea agente hezitzailetzat hartzea, entrenatzaileaz hezitzaile gisa hitz egitea da gakoetako bat. Eskola kiroleko monitoreak, gorputz-hezkuntzako irakaslea edota kirol-testuinguru bateko entrenatzailea, ikaslearen garapen integralaren arduradunak dira, eta ez soilik emaitzen arduradunak (Monjas et al. 2015). Hortaz, beharrezkoa ikusten da, kirol-irakasleak, alderdi teknikoak irakasteko prestatuta egoteaz gain, ikasleen garapen afektibo, emozional eta sozialari erantzuteko prestatuta egotea (Fraile et al. 2011).

Ikerketa desberdinek, azken hogeita hamar urteetan eskola-kiroleko monitoreen prestakuntza, kalifikazioa eta titulazio falta azpimarratzen dute. Gaur egun, eskolako kirol-teknikarien lanbide-egoera ez da funtsean aldatu. Lan hori jokalarari ohiek, gurasoek eta teknikariek egin ohi dute, prestakuntza espezifikorik eta lan-kontraturik gabe, eta horrek eragin negatiboa du programazioen hezkuntza-eremuan (Fraile et al. 2011). Izan ere, boluntarioen sistema batek prestakuntza-gabeziak konpentsatzen zituen, entrega- eta dedikazio-dosi nabarmenekin. Baina denboraren joanak eta kalitate-irizpide batzuk betetzera bideratutako eskakizun gero eta handiagoek agerian uzten dituzte mekanismo zaharkitu horiek, edo, behintzat, ez dira nahikoak eskola-kirol garaikidean ezarritako helburuak lortzeko (Monteagudo et al. 2014).

Beraz, gorputz-hezkuntzan edo irakasle-eskolan espezializatutako profiletara sartzeko ezintasuna konpontzeko, hezkuntza-jarrera handiko prestakuntza da bide bakarra, monitoreek eskola-kirol guztiz hezitzailea sustatzeko behar diren estrategiak ezagutu eta erabiltzeko (Monteagudo et al. 2014). Azkenean, entrenatzaileen prestakuntza mailak eta eskola-kirolari buruz duten filosofiak eragin erabakigarria izango du praktikan jartzean,

esplizituki, zenbait balio transmititzen dizkiolako taldearen filosofiari, eta, inplizituki, ezkutuko curriculumara, bere jarrera eta portaerekin.(Monjas et al. 2015).

### 3. **HELBURUAK**

Lan honen helburu nagusia, **Eskola Kirolaren eta Gorputz Heziketaren arteko elkarlana hobetzea da**, eta horretarako Eskola Kirolean inplikaturik dauden monitore eta koordinatzaileen artean ikerketa bat egin da.

Lan honek baditu zenbait azpi-helburu:

- **Monitore eta koordinatzaileen usteak biltzea Eskola Kirolak eta Gorputz Heziketak duten loturaren inguruan.** Eskola Kirolak haurrengan egin ditzaken ekarpenen inguruan parte hartzaileek dituzten usteak jasoko ditugu; garapen integralari egiten dion ekarpena, balore egokien transmisiorako tresna gisa eta, Gorputz Heziketarekin izan ditzakeen lotura, desberdintasun eta antzekotasunak. Eskolen errealitatean GH eta EKaren artean zein elkarlan dagoen ikusiko dugu.

- Bestetik, **agente inplikatuentzat, Eskola Kirolaren helburu nagusiak zeintzuk diren ezagutzea** izango da beste azpi-helburuetako bat; eta honekin batera **Eskola Kirolak duen izaera hezitzailearen inguruan uste dutena jasotzea**. Ea Eskola Kiroleko langileak haurren parte hartzearen alde dauden, edo errendimendura bideratzen duten haien jarduna. Gorputz Heziketan eta kirolen pedagogian urteetan finkaturik egon diren estrategia eta pentsamolde tradizionalak bertan jarraitzen al duen, edo Eskola Kiroleko langileak gaur egungo ikerketa eta pentsamolde berrietara egokitu diren jakin nahi dugu.

- **Eskola Kirolean inplikaturik dauden agente desberdinen informazio orokorra biltzea** izango da beste helburu bat. Ikastetxe eta Eskola Kiroleko proiektu desberdinetan lanean ari diren pertsona hauen adina, sexua, ikasketak eta haien lanpostuaren inguruko informazioa jasotzeko, alde batetik Eskola Kiroleko monitoreena eta beste aldetik Koordinatzaileena.

- Monitore eta koordinatzaileen laguntzaz, **Eskola Kirolaren koordinazio eta antolakuntza ikertzea** izan da beste azpi-helburuetako bat. Eskola Kirolaren funtzionamendua ondo ulertzeko, beharrezkoa da honen arduradunak direnen lana aztertzea, kasu honetan koordinatzaileena. Eskola Kiroleko monitoreez, proiektuen diseinuaz eta baliabideen koordinazioaz arduratzen diren langileak hain zuzen ere.

- Azkenik, **Eskola Kirolak izan ditzakeen hutsuneak eta hobetzeko alderdiak ezagutzea** da azken azpi-helburua. Lanean ari diren eta zuzenean inplikaturik dauden

hezitzaileen eta koordinatzaileen esperientziatik abiatuz, eskola kirola hobetzera bidean zer egin beharko zen galdetzea eta haien ikuspegiak biltzea.

Helburu haien erantzuteko galdetegi bat prestatu da monitore eta koordinatzaileen artean zabaltzeko. Hurrengo atalean zehazten dira datu bilketaren xehetasunak.

## **4. METODOLOGIA**

### **4.1. Lagina**

Ikerketa honetako parte hartzaileak ondorengoak izango dira; alde batetik Eskola Kiroleko EAEko eskola desberdinetako hezitzaile edota monitoreak; eta bestetik, Eskola Kiroleko antolakuntza eta zuzendaritzaz arduratzen diren koordinatzaileak.

33 monitoreren erantzunak bildu dira, haien ikuspuntuak jasotzeko. 16 Ikastetxeen artean, Donostialdeko Orixe, Zurriola, Ibai, Jakintza, Amassorrain, Amara Berri, Ibai eta Aiete ikastetxeak ditugu. Bestetik, Oiartzualdeko Orereta Ikastola eta Egiluze ikastetxea; Buruntzaldeko Landaberri, Sasoeta eta Oriarte ikastetxeak; Amurrioko Aresketa Ikastola; Hondarribiko Talaia Ikastetxea; eta, Gasteizeko Urkide ikastetxea.

Aldi berean, 7 koordinatzailek parte hartu dute. Koordinatzaileak Donostiako E2 proiektuko zenbait eskoletako Eskola Kiroleko arduradunak dira, ez dugu ikastetxeen berri emango koordinatzaileen anonimotasuna ziurtatzeko.

### **4.2. Datu bilketarako tresnak**

Informazio bilketarako bi galdetegi erabili dira, *Eskola Kiroleko monitoreentzako galdetegia* eta *Eskola Kiroleko Koordinatzaileentzako galdetegia*. Galdetegi hauek Google forms aplikazioarekin sortu dira. Lopez de Abetxukoren (2021) galdetegian oinarritu naiz eta zenbait egokitzapen egin ditut ikerketa helburuei erantzuteko.

Monitoreentzat sortutako galdetegiak 33 galdera ditu eta koordinatzaileenak 28 galdera. Galderak gaika banatu dira eta bi galdetegietan, hainbat galdera berdinak dira; 1) *Eskola Kirolaren helburuak*; 2) *Eskola Kirolaren koordinazioa*; 3) *Eskola Kirola Hezitzailea*; 4) *Eskola Kirola eta Gorputz Heziketaren arteko lotura*; 5) *Eskola Kirola hobetzeko ekarpenak*.

Bi galdetegietan egindako galdera espezifikoei dagokienez, *haien informazio orokorrari* buruz galdetzean, lan postu desberdinak izanik, galdera desberdinak izan dituzte koordinatzaile eta monitoreek, eta koordinazioaren inguruan ere. Bestetik, *Monitoreen Formakuntzaren* gaia monitoreen galdetegian jorratzen da.

Galdera mota hauek baliatu dira galdetegian: galdera itxien artean, bi motatakoak zeuden; batetik, esaldiak aukeratzea, eta bestetik, baieztapenen aurrean adostasuna edo desadostasuna adieraztea. Bestetik, galdera irekiak edo hausnarketarakoak erabili dira.

#### **4.3. Datu bilketarako prozedura**

Aukeratutako eskoletan ezagunak nituen langileekin kontaktuan naiz, monitore zein koordinatzaileen artean "watsapp" bitartez galdetegia betetzeko linka zabaldu dut, eta google forms-en bitartez bildu dira emaitzak. Monitoreen kasuan erraz iritsi naiz monitore kantitate esanguratsu batera, baina koordinatzaileen kasuan, gutxiago ezagutzen ditudanez, zailagoa izan da eta gehiago itxaron behar izan dut zenbait erantzun jasotzeko.

Aplikazioak berak erantzun guztiak bildu ditu, eta hauek ikusteko aukera desberdinak eskaintzen ditu; galderaka, erantzunka eta laburpen moduan,. Beraz, Google Forms aplikazioa erabili da emaitzak jasotzeko.

#### **4.4. Analisisirako prozedura**

Azkenik, behin erantzunak jasota, hau izan da emaitzen analisisirako prozedura. Galdera kuantitatiboen kasuan, Google formsek eskaintzen dituen batz bestekoak baliatu ditut. Aukera desberdinen artean monitoreek eta koordinatzaileek bozkatu dituzten erantzunak, ehunekoen bitartez bildu dira. Galdera kualitatibo edo irekietan, iritzi desberdinen artean, ideia interesgarri eta errepikatuenak jaso dira emaitzetan. Honen bitartez, inkestan parte hartu dutenen gehiengoaren iritzia islatzeko. Diagramen kasuan, Google Forms-ek proposatutakoak erabili ordez, Excelen bitartez berriak sortu ditut.

Ondoren, inkestek emandako informazioa emaitzen atalean deskribatu dut. Alde batetik monitoreen galdetegien emaitzak eta bestetik koordinatzaileenak.

## 5. EMAITZAK

Atal honetan emaitzen berri emango dut. Alde batetik monitoreek emandako datuen berri emango dut (5.1) eta bestetik koordinatzaileenak (5.2). Atal bakoitza zazpi eta sei azpi ataletan banatuta dago. Azpi atal bakoitzean emaitza nagusiak eta iritzi desberdinak aurkezten ditut.


### 5.1. MONITOREEN INKESTEN EMAITZAK

Atal honetan, lurralde desberdinetako Eskola Kiroleko 33 hezitzailek betetako galdetegiaren bitartez jasotako emaitzak bildu dira. Gaika sailkatuz zazpi multzotan banatu dira galderak; 1) Informazio orokorra; 2) Eskola Kirolaren helburuak; 3) Koordinazioa; 4) Eskola Kirola hezitzailea; 5) Gorputz Heziketarekin duen lotura; 6) Monitoreen formakuntza; 7) Monitoreen ekarpena Eskola Kirola hobetzeko bidean.

#### 5.1.1. Eskola Kiroleko monitoreen informazio orokorra

Eskola Kiroleko monitoreen ezaugarri orokorrak aztertuko ditut. Lehenik eta behin, adinari dagokionez; 16 urtetik, 33 urtera zabaltzen da hezitzaileen adin tartea, eta gehiengoak (%78,3ak) 18-24 urte bitartean ditu. Hezitzaileen gehienak ikasleak dira (batxilergoko, goi mailako graduko edo unibertsitateko ikasleak). Emakume eta gizonen arteko kopurua oso orekatua da, %51,5a gizonak eta %48,5a emakumeak, ez da egon "beste bat" erantzunik.

Jarduera Fisikoaren arloko formakuntzari dagokionez; monitoreen ia %70ak ez du inongo formakuntzarik, eta gainontzeko %30ak badu formakuntza, Gorputz Hezkuntzan espezializatutako irakasleak, Kirol teknikariak eta Jarduera Fisiko eta Kirol zientzietan lizentziatuak. Lan esperientziari dagokionez, lan honetan bi urte baina gehiago daramaten hezitzaileak soilik %30a dira, eta gehiengoarentzat lehen urtea da.



1. grafikoa: Esperientzia eskola kiroleko monitore bezela


Eskola Kirolaren eskaintzari dagokionez, monitore hauen eskolen %80ak lehen mailatik seigarrenera eskaintzen dute zerbitzu hau. Gehiengo honen kasuan, astero, lehen eta bigarren mailetan, soilik saio bat izaten dute, eta gainontzekoetan, bi saio eta asteburuetako jardunaldia. Monitoreen %76ak gutxienez bi maila desberdinetako hurrekin egiten du lan. Monitoreen artean %81,8ak kontratuarekin egiten du lan, eta oraindik ere %18,8ak kontratu gabe egiten du lan.

### 5.1.2. Eskola Kirolaren helburuak monitoreen arabera

Monitoreei eskola kirolaren helburuei buruz galdetu zaie, eta astean zehar aurrera eramaten dituzten saioen helburuei buruz galdetzean, monitoreen %97ak *talde kohesioa bultzatzea eta jarrera egokiak bultzatzea* aukeratu dituzte. Beste aldetik, *lehiaketa* eta *alderdi fisikoen garapena* gutxien aukeratu dituztenak izan dira, %36ak aukeratu dituzte.

Asteburuetako jardunaldien helburuen artean, *ikasleen gozamina bultzatzea* garrantzitsua dela adierazi dute monitoreen %93,9ak. *Ikasleen parte hartzea bermatzea* eta *arauak, taldekideak eta aurkariak errespetatzen ikastea*, monitoreen %90arentzat garrantzitsuak izan dira. Berriz, *lehiatzea eta partida irabaztea* %34,4arentzat soilik.

Azkenik, Eskola Kirolaren helburu nagusiak haientzat zeintzuk diren galdetuz, hainbat aukeren artean, hauek izan dira bozka gehien jaso dituztenak 33 monitoreen artean:



2. Grafikoa: zeintzuk dira eskola kirolaren helburu nagusiak hezitzaileentzat

Gehien aukeratu dituzten helburuak hauek izan dira: *Helburu hezitzailea* %84,8ak, *Harreman egokiak bultzatzea* %84,8ak eta *Kirolarekiko atxikimendua* %72,2ak.

### 5.1.3. Eskola Kirolaren koordinazioa

Monitoreei haien eskolako Eskola Kirolaren koordinazioaren inguruan galdetuz, ikastetxe guztietan dago Eskola Kirola koordinatzen duen koordinatzailearen figura.



Monitoreen arabera koordinatzaileen erdia kirol teknikariak dira, eta laurden bat, eskola berdineko gorputz heziketako irakasleak.

Koordinatzaileen zereginen inguruan galdetzean, monitoreen %100ak *monitoreen koordinazioa* eta *gurasoekin kontaktua* azpimarratu dute, beste aldetik, *monitoreen formakuntza* %30ak aukeratu du, eta %27ak *saioen sorkuntzan laguntzea*.

Amaitzeko, monitoreei koordinatzaileak zertan laguntzea gustatuko litzaikeen galdetzean, honelakoak izan dira gehien errepikatu diren eskaerak; “*Saioen sorkuntzan laguntzea, honek saioen barietatea hareagotuko zuelakoan (M10<sup>1</sup>)*” edota “*Monitorea formatzea (M26)*”: Gatazken kudeaketarako laguntza zen beste eskaera nagusia; “*Ikasleen jarrerek eragin ditzaketen arazoetan esku hartzea, edozein haur edo gurasorekin arazoren bat edukiz gero babes hori ematea (M8)*” zioen hezitzaile batek.

#### **5.1.4. Eskola Kirola hezitzailea**


Monitoreei eskola kirolaren izaera hezitzaileaz galdetu zaie. Monitoreen %62ak bazekien zer den garapen integrala ikasleen hezkuntza prozesuari dagokionez, eta %80ak beharrezkotzat identifikatu du jarduera fisikoa garapen integrala lortzeko bidean.

Ondoren, monitore gehienak ados edo oso ados egon dira hurrengo baieztapenarekin: *eskola kirolak garapen fisikoan eta osasuna hobetzen laguntzen du. Eskola kirolaren bitartez, haurrek beraien konfiantza eta autoestimua hobetzen duten galdetu zaie, eta monitoreen %81,8a ados egon da.*

Monitore guztiek, *Eskola kirolaren bitartez balio positiboak transmititu daitezkeela* uste dute; joko garbia, araukiko errespetua, laguntasuna, taldekidetza, etab. Balio negatiboen transmisioari dagokionez, monitoreen %78,1ak uste du eskola kirolaren bitartez (maskulinitate hegemonikoa, gehiegizko lehiakortasuna, harrokeria, agresibitatea edo ahulezia baztertzea bezalako) balio negatiboak transmititu daitezkeela.


---

<sup>1</sup> Monitore bakoitzari Mx kodea jarri zaio, kasu honetan M10 galdetegia bete duen 10. monitorea da



3. grafikoa. Eskola Kirolaren bitartez balio negatiboak transmititu daitezke.

Monitoreen erantzunen artean desadostasun gehien sortu duen baieztapena hau izan da; *Eskola Kirolean, neska eta mutilen parte hartzea berdina da*. Izan ere, monitoreen portzentai handiena, %57,6a, ez dago ados baieztapen honekin.




4. grafikoa. Eskola Kirolean neska eta mutilen parte hartzea berdina da.

Beste aldetik, multikirolaren auziari dagokionez, *eskola adinean ahalik eta kirol desberdin gehienetan jardutea onuragarria da haurrentzat*. Eta hala uste dute Eskola Kiroleko monitoreek, %100a egonik ados baieztapen honekin. Aldi berean *haurren garapenerako espezializazio goiztiarra kaltegarria* dela uste dute monitore gehienek.

### 5.1.5. Eskola kirola eta gorputz heziketaren arteko lotura

Konpetentzia motorraren inguruan galdetu zaie Eskola Kiroleko monitoreei. 33 erantzunetatik, %55ak bazekien zer zen konpetentzia motorra, eta beste %44,5ak ordea, ez zuten ezagutzen. Ondoren, *Eskola Kirolaren eta Gorputz Heziketaren arteko antzekotasune* buruz galdetzean, batzuek antzekotasuna asko dituztela baieztatu dute, baina %56,2ak ez dute bat egin ideia honekin.


Eskola Kirolaren eta Gorputz Heziketaren helburuei dagokionez, monitorean %69,7arentzat ez dira oso antzekoak. Horrekin lotuta, *eskolaz kanpoko jardueren programazio eta diseinuan Gorputz Heziketako profesionalen esku hartzea beharrezkoa da* baieztapenaren aurrean, monitorean gehiengoa ados dago.



5. grafikoa. Gorputz Heziketako profesionalen esku hartzea.

#### 5.1.6. Monitorean formakuntza

Monitorean %81,2ak uste du, *Eskola Kirolaren helburu hezitzailea eta kalitatezko heziketa bermatzeko monitorean formakuntza bultzatzea beharrezkoa dela*. Formakuntza hau bideratu beharko zuten agenteen inguruan galdetuz; %33,7ak uste du koordinatzaileak izan beharko zirela monitorean formakuntzaren arduradunak edo formakuntza honetan lagundu beharko zutenak. Bestetik, monitorean %6ak uste du eskolako gorputz heziketako irakasleak formatu beharko zituela.



6. grafikoa. Formakuntza bermatu beharko luketen agenteak

### **5.1.7. Monitoreen ekarpenak eskola kirola hobetzeko bidean**

Eskola Kirola hobetzeko bidean, monitoreen ekarpenak bildu ditugu galdetegiaren amaieran. Monitore askok monitoreen formakuntza beharra azpimarratu dute: *“Monitoreak formatzea, zein balore transmititu nahi ditugun argitzea eta hori haurrei helaraztea. Ikasleak kirolera animatzeko eta haien ongizate zein bizikidetzan laguntzeko.(M23)”*. Bestetik, erkidego osorako eredu bateratu baten beharrari buruz idatzi dute zenbait hezitzailek, horrela idatzi du hauetako batek: *“Lurralde guztian eskola kiroleko eredu berdina izatea onuragarria izango zen.(M31)”*. Azkenik, hainbat monitorek multikirolaren aldeko apustua egitearen beharra nabarmendu dute, M14 monitoreak dio *“Kirol mota gehiago jarriko nituzke.”* eta M22 monitoreak *“Kirol tradizionalei indar gutxiago emango nieke, kirol gehiago eta beste kirol motatakoak praktikatzea interesgarria delako.”*.

## **5.2. KOORDINATZAILEEN INKESTEN EMAITZAK**

Atal honetan, lurralde desberdinetako Eskola Kiroleko 7 koordinatzaileen emaitzak bildu dira. Galderak 6 gai desberdinetan sailkatu dira; informazio orokorra koordinatzaileen inguruan, Eskola Kirolaren Koordinazioa, Eskola Kirolaren helburuak, Eskola Kirol hezitzailea, Gorputz Heziketarekin duen lotura, eta koordinatzaileen ekarpenak eskola kirola hobetzeko bidean.


### **5.2.1. Eskola kiroleko koordinatzaileen informazio orokorra**

Eskola Kiroleko koordinatzaileen ezaugarri orokorreari erreparatuz. Lehenik eta behin, adinari dagokionez; barietate handia dago, 20 urtetik 43ra, gehiengo 24 eta 26 urte bitartekoa izanik. Hauen artean, emakume eta gizonen artean desoreka handia dago, emakume bakarria egonik zazpi koordinatzaileen artean.

Formakuntzari dagokionez, goi mailako edo unibertsitateko graduak dituzte. Jarduera Fisikoaren edo hezkuntzaren arloko formakuntzari buruz galdetzean, erdia baina gehiago Gorputz Heziketan espezializaturiko irakasleak direla. Bestetik, Kirol teknikariak edota Jarduera Fisiko eta Kirol Zientzietan lizentziatutakoak daude. Soilik koordinatzaileetako batek ez du formakuntzarik jarduera fisikoaren edo hezkuntzaren alorrean.

Lan baldintzei dagokionez, desberdintasun handia dago koordinatzaileen artean. Haien kontratuetan, astero bete behar dituzten lan orduak desberdinak dira, 5 ordutik 24 ordura doaz, batz bestekoa 15 ordu izanik. Inkesta bete duen %85,7ak beste lan bat du Eskola Kiroleko koordinatzaile izateaz gain.

Koordinatzaileen zereginak desberdinak dira ikastetxe batetik bestera. Hurrengo taulan ikus dezakegun bezala, guztiek koordinatzen dituzte monitoreak eta gurasoekin kontaktuan daude. Koordinatzaileen %57,1ak identifikatu dute monitoreen formakuntza haien zereginetako bat bezala.




7. grafikoa: Koordinatzaile lanaren zereginak

Lan baldintzen inguruan galdetuz, erantzun gehienek lan ordu kopurua igo edo erregulatzearekin lotura zuten, hala zioen batek; *“Lan ordu gehiago. Askotan behar baina ordu gehiago sartu behar izaten ditut (K2)”*. Beste batzuek, ez soilik koordinatzaileen lana, baizik eta eskola kiroleko langileen lanaren erregulazioa eskatzen zuten; *“Konbenio bat egotea ezinbestekoa da, Eskola Kirolarekin zerikusia duten lanpostu guztiak formalki erregulatuak egotea.(K4)”*

### 5.2.2. Eskola kirolaren helburuak koordinatzaileen arabera

Koordinatzaileen eskola guztietan dago Eskola Kiroleko eskaintza 3. mailatik 6.era, eta gehiengoak 2. mailan ere eskaintzen duen harren, 1. mailan, gutxik dute. Eskola Kiroleko saioen helburuei dagokionez, **1. eta 2. mailan, talde kohesioaren eta jarrera egokien sustapena** dira helburu nagusienak koordinatzaileen ustez. Bestetik, **benjamin eta alebin** garaian, koordinatzaileen ustez helburuak aldatzen direla ikus dezakegu. *Joko-jolasak burutzea, eta, kirol teknika eta taktikak ikastea*, bihurtuz koordinatzaileen %100arentzat etapa honetako helburuak. Bestetik, ez dira koordinatzaile hauentzat *Alderdi fisikoen garapena eta lehiaketa* Eskola Kiroleko saioen helburu nagusiak.

Asteburuetako jardunaldiei buruz galdetzean, helburu nagusiak *parte hartzea, gozamen eta errespetua* dira koordinatzaileentzat. Aldi berean, ondorengo taulan ikusi dezakegun bezala, Eskola Kirolak proiektu bezala duen helburu nagusia, beste askoren artean, *hezitzailea* da koordinatzaileen ustez.



8. grafikoa: Eskola Kirolaren helburu nagusiak koordinatzaileen ustez

### 5.2.3. Eskola Kirolaren koordinazioa


Koordinatzaileei euren lanari buruz galdetzean, bi ideia nagusi nabarmendu dira haien erantzunen artean. Lehenik, Eskola Kiroleko proiektuen funtzionamendu egokirako koordinatzailea ezinbestekoa dela azpimarratzen zuten; hala zioten, *“Koordinaziorik gabe, eskola kirola aurrera eramatea ezinezkoa litzateke. Gainera, proiektu berrietan gure lana askoz ere handiagoa da.(K1)”* ; *“Kudeaketan erabat zentratua dagoen pertsona bat funtsezkoa da, gaur egun burokrasia handia dago aurre egiteko(K3)”*.

Bestetik, Eskola Kiroleko proiektuen jarrera hezitzailea bermatzeko beharrezko lana egiten dutela baieztatu dute koordinatzaileek, hauek izanik haien hitzak; *“Eskola Kirola erreminta hezitzaile bat da eta hezkuntzaren ikuspuntutik landu behar dena. Haurrak kirolaren bitartez heztea da helburua, eta horrek hainbat gauza eskatzen dizkigu koordinatzaileei.(K7)”*

### 5.2.4. Eskola Kirola hezitzailea

Koordinatzaileek Eskola Kirolaren alderdi hezitzaileaz duten ikuspuntua aztertu dut. Azpimarratu beharra dago, koordinatzaileen %100a ados edo oso ados egon direla hurrengo baieztapenekin: 1) *Haurrek garapen integrala lortzeko Jarduera Fisikoa praktikatzea beharrezkoa da;* 2) *Eskola Kirolak garapen fisikoan laguntzen du eta osasuna hobetzen du;* 3) *Eskola Kirolaren bitartez, haurrek beraien konfiantza eta autoestimua hobetzen dute (ondorio emozional onuragarriak ditu);* 4) *Eskola Kirolaren bitartez balio positiboak transmititu daitezke (joko garbia, arauetiko errespetua, laguntasuna, taldekidetzeta...);* 5) *Eskola adinean ahalik eta kirol desberdin gehienetan (multikirola) jardutea onuragarria da;* 6) *Eskola adinean, gazteegi espezializatzea kirol batean ez da egokiena ikaslearen garapenerako.*

Bestetik, izan dira desadostasun gehiago sortu dituzten baieztapenak. Eskola Kirolean mutil eta neskek duten parte hartzearen inguruan, koordinatzaileen %71,5ak, *mutil eta nesken parte hartzea berdina* dela uste dute, eta gainontzekoak, ez dute hala uste. Ondoren, diagraman ikus dezakegun bezala, *Eskola Kirolak balio negatiboak transmititzeko duen gaitasuna* azpimarratzen zuen baieztapenaren aurrean; koordinatzaileen %42,8a ados agertu da, eta %57,2a ez zegoen ados.




9. grafikoa: Eskola Kirolaren bitartez balio negatiboak transmititu daitezke

### 5.2.5. Eskola Kirolaren eta Gorputz Heziketaren arteko lotura

Gorputz Heziketaren eta Eskola Kirolaren arteko loturari buruz galdetzean, koordinatzaileen %42,9ak zera uste dute, *antzeko helburuak dituzte baina bi eremu hauetako langileak ez daude koordinatuak*. Bestetik, Eskola Kirolari *garrantzia gutxiago ematen zaiola* uste dute koordinatzaileen %42,9ak ere, eskola orduz kanpo ematen delako eta derrigorrezkoa ez delako. Koordinatzaileen %14,3ak soilik adierazi du koordinazioa dagoela bi eremu hauen artean, arazoak kudeatzeko eta materiala elkarbanatzeko helburuarekin.

Hala ere, koordinatzaile guztiek uste dute *EKren eta GHren helburuak antzekoak direla*, eta baita, *Eskola Kirola eta Gorputz Heziketa elkarlanean edo koordinatuak egotea onuragarria litzatekeela ikasleen garapenerako*. Ordea, hurrengo diagraman ikus daitekeenez, %57,1ak uste du *Eskola Kirolaren helburu hezitzailea bermatzeko, GHko profesionalen esku hartzea beharrezkoa dela*; %42,9ak ordea ez du uste esku hartze hau beharrezkoa denik.



10. grafikoa: Gorputz Heziketako profesionalen esku hartzea Eskola Kirolean

### 5.2.6. Koordinatzaileen ekarpenak eskola kirola hobetzeko bidean

Amaitzeko, Eskola Kirola hobetzeko zer egin beharko zen galdetu zaie koordinatzaile hauei, barrutik haien iritzia zein den jakiteko. K5-ak honela zioen; *“Nire ustez errendimenduko kirolek eta gorputz hezkuntzatik bereizten den eredu bat izan behar da eskola kirola, balore hezitzaileetan oinarritutako parte-hartze lehiaketa. Benetako multikirol eta balore hezitzaileetan oinarrituta. Eta proiektu hori ondo atera dadin horrekiko atxikimendua eta horretan sinisten duten profesionalen osatzea, horretarako behar diren baliabideak baliatuz.(K6)”* Bestetik, gehien **errepikatu diren ideiak** **monitoreen formakuntza**, **lehiaketaren murrizketa** eta **eskolen arteko koordinazioa** izan dira.



## **6. ONDORIOAK**

Ondorioen atalean, jasotako emaitzak interpretatuko dira, monitoreen zein koordinatzaileen inkestak kontuan izanik. Ateratako ondorioak burututako lanaren helburuekin bat joan daitezten, hiru puntu desberdinetan banatu ditugu: 6.1) Eskola Kirolaren eta Gorputz Heziketaren arteko elkarlanaren inguruko ondorioak; 6.2) Eskola Kirolaren izaera hezitzailearen ondorioak; 6.3) Eskola Kiroleko monitore eta koordinatzaileak.

### **6.1. Eskola Kirolaren eta Gorputz Heziketaren arteko elkarlana**

GH eta EK, eskola-etapako gorputz- eta kirol-jardueraren erreferentzia-eremuak dira, eta biek hezkuntza-helburuei erantzuten diete, ikaslearen garapen integralari ekarpena eginez (González, García, Contreras, eta Sánchez Mora, 2009). Hala ere, lan honen bitartez, monitore zein koordinatzaileek adierazita, ikusi dugu bi eremu hauen arteko koordinazioa oso urria dela, eta materialaren eta espazioen elkarbanaketara mugatzen dela kasu gehienetan. Esaterako, koordinatzaileen %14,3ak soilik adierazi du koordinazioa dagoela bi eremu hauen artean, arazoak kudeatzeko eta materiala elkarbanatzeko.

Ikerketan parte hartu duten koordinatzaile eta monitoreek, GH eta EKren antzekotasunak identifikatzeko gai dira, eta hauen arteko elkarlanak eta koordinazioak ikasleen garapenean efektu positiboa izango lukeela adierazten dute. Hau bat dator legediak dioenarekin, Eskola Kirola funts-funtsezkoa dela eskola-umeen heziketa integralari begira, eta, honen helburua parte hartzen duen haurren hezkuntza-garapenaosatzea dela.

Monitoreen eta koordinatzaileen artean, ehuneko handi batek uste du GHko profesionalen esku hartzea ez dela beharrezkoa helburu hezitzaile hau bermatzeko. Ordea, Devisek (1995) dioten moduan, eskola-kirola gorputz-hezkuntza luzatzen eta osatzen duen kirol-hezkuntza gisa ulertuta, irakasgai honetako irakasleak funtsezko inplikazioa eduki beharko luke honen sustapenean.

Monitoreen eta koordinatzaileen usteetan agertu den beste alderdi garrantzitsu bat hurrengoan izan da, EKan GHan bezala, garapen integrala lortzeko bidean, fisikoki aktiboagoak izateko eta jarduera fisikoa praktikatzeko. Fort-Vanmeerhaeghe et al.-ek (2017) dioten bezala, horretarako ikasleek konpetentzia motorrak landu behar dituzte, trebetasun espezifikoak garatuz joan behar dira, garapen integrala lortzeko. Baina nola bermatuko du konpetentzia motorraren lanketa hau ezagutzen ez duen norbaitek? Ikerketaren emaitzen arabera, monitoreen ia erdiak ez baitu ezagutzen konpetentzia motorra.

## **6.2. Eskola Kirolaren helburuak eta izaera hezitzailea**

Lan honek, EKak legediaren arabera duen helburua zalantzan jartzera eraman nau. Emaitei erreparatuz, argi ikusi daiteke, monitore nahiz koordinatzaileek helburu hezitzailea duen eredu baten alde egiten dutela lan, gozamenari, harremanei, aukera berdintasunari eta parte hartzeari garrantzia berezia emanez. Hau da, Eskola Kirola, errendimendutik eta lehiaketa hutsetik aldentzen ari dela dirudi.

Bilakaera hau, Gorputz Heziketak urteetan izan duen aldaketarekin alderatzen badugu, antzekotasun asko dituela ikus dezakegu. Eduki kurrikularraren garapena erreparatzen badugu, duela zenbait urte GH errendimenduaren paradigman zegoen kokatuta, Tiningek (1985) dioen moduan, ikasleen kirol errendimendua handitu edo hobetzea zen helburu nagusia. Urteen poderioz, parte-hartzearen paradigmarantz iritsi gara, non helburu nagusia, mugimenduaren kulturen partaidetza areagotzea da, ikasleek parte-hartze horretatik erator daitezkeen balio terapeutiko eta hezitzaileak lor ditzaten (Tinning, 1986). Beraz, oso positiboa da EKeko monitore eta koordinatzaileen ikuspuntua, GHko langileenaren antzera, parte hartzearen aldekoa izatea.

Motrizitatearen garapena dakarten praktika-esparruek oso errealitate desberdinak hartzen dituzte, parkeko joko asketik hasi eta errendimendu-entrenamenduraino (González, García, Contreras, eta Sánchez Mora, 2009). Ikerketan, bai monitoreen eta koordinatzaileen erantzunetan, helburuak aztertuz, EKean, benjamin eta alebin mailan, kirol teknika eta taktikak garrantzia irabazten dutenez, errendimenduari bideratutako entrenamendu saioak eta jardunaldiak aurki ditzakegu. Bestetik, lehen eta bigarren mailan, partidurik ez egoteak izaera hezitzaileago bat ematen dio EKri, helburu nagusiak jarrera egokiak eta talde kohesioa bultzatzea izanik.

Helburuez gain, koordinatzaile eta monitoreak bat datoz Eskola Kirolaren izaera hezitzailean; ikasleen garapenean izan ditzaken onurez edota eskola kirolaren bitartez ikasleengan transmititu ditzakegun balio positiboak. Zulaikak (2006) balio positibo hauen hainbat adibide ematen dizkigu; joko garbia, errespetua, talde lana, ardura eta autokontrola beste askoren artean. Ordea, monitore eta koordinatzaile askok ez dute uste EK balio negatiboak transmititu ditzakeela, baina, Zulaikak dioen moduan, edozein kirol jardueran ez da beti hezitzailea. Eskola kirolaren kasuan ere, gehiegizko lehiakortasuna, konparaketa soziala, maskulinitasuna hegemonikoa edota ahuleziaren bazterketa, zeharka ematen diren ikaskuntzak dira.

Bai monitore eta baita koordinatzaileen artean desadostasuna sortu duen alderdia mutil eta nesken parte hartzearen arteko desberdintasuna izan da. Monteagudok (et al 2014) dioen moduan, aurrera pausu positiboak egon dira Ekan genero ikuspegiari dagokionez, baina Ekan lanean ari direnetako askok uste dute, mutil eta nesken parte hartzea oso desorekatua dagoela oraindik. Hala ere, Azurmendik (2017) dioen moduan Eskola Kirola testuinguru ezin hobea da neskak kirolean jabetzeko, eta inkestan parte hartu dutenen zati handi batek parte hartze parekatua dagoela pentsatzeak, hein batean aurrera pausuak eman direla erakusten digu.

Bestalde, mutikirolaren auzian, monitore nahiz koordinatzaileak espezializazio goiztiarraren aurka eta mutikirolaren alde jarri dira. Gutxi balitz, monitore askok haien proiektuetan kirol gehiago praktikatzea gustatuko litzaikeela baieztatu dute. Monteagudok (2014) dion bezala multikirola interesgarria da haurrentzat, kirol bakoitzak eskaintzen dituen aukerak ikusi eta eremu bakoitzean dituzten gaitasun eta trebetasunak ezagutzeko, eta hala uste dute EKko langileek ere.

Eskola Kirola hobetzeko eta helburu hezitzailea bermatzeko, bai monitoreen eta baita koordinatzaileen gehiengoak, monitoreen formakuntza beharrezkoa dela uste du. Ikerketan ikusi dugun bezala, monitore hauen gehiengoarentzat lehen urte da lan hau burutzen eta zenbait gauzetarako formakuntza edo laguntza falta azpimarratzen dute; gatazken kudeaketarako eta saioak prestatzeko gehien bat. Frailek (2011) dioen moduan, kirol-irakasle hauek alderdi teknikoak irakasteko gai izateaz gain, ikasleen garapen afektibo, emozional eta sozialari erantzuteko prest egon behar dute, eta gehienak prestakuntza espezifikorik gabeko langileak dira.

### **6.3. Eskola Kiroleko monitore eta koordinatzaileak**

Lan honetako emaitzak bat datoz Monteagudok (2014) bere lanean adierazitakoarekin, hau da, eskola kirol garaikideak ezarritako helburuak eta kalitate-irizpideak ez dira errealitatera hurbiltzen, formakuntza faltak eta gorputz-hezkuntzan edo irakasle-eskolan espezializatutako profiletara iristeko ezintasunagatik. Ikerketan parte hartu duten monitoreen ustez, haien formakuntzaz arduratu beharko zirenak koordinatzaileak dira, eta hala beharko luke, ikusi dugunez jarduera fisikoaren eta hezkuntzaren inguruan formatuta dauden pertsonak baitira. Monteagudoren hitzetan, gorputz-hezkuntzako irakasleak dira, ikastetxeetan eskola-kirola koordinatzeko eta dinamizatzeko zeregina beren gain har dezaketenak. Koordinatzaileen emaitzak erreparatuz aniztasuna da nabarmen, GHko irakasleak eta kirol teknikariak izanik, lan baldintza desberdinak dituzte eta gehienek beste lan bat dute honetaz aparte eskolatik kanpo.

Koordinatzailearen lana beharrezkoa da, koordinatzaile nahiz monitoreek dioten moduan, Eskola Kirolaren funtzionamendu egokia eta izaera hezitzailea bermatzeko. Haien eginkizunen artean hauek ikusi ditugu gehien bat; monitoreen koordinazioa, gurasoekin kontaktua eta jardunaldien kudeaketa. Formakuntzari dagokionez ordea, bai haiei eta baita monitoreei beharrezkoa iruditu harren, koordinatzaile oso gutxi arduratzen dira monitoreen formakuntzaz. Monjasek (2015) dioten moduan entrenatzaileen prestakuntza mailak eta eskola-kirolari buruz duten filosofiak eragin erabakigarria izango du, baina koordinatzaileek, ez dute lan ordurik monitoreen formakuntzari eskaintzeko, gehienek haien lan orduak baina gehiago betetzen baitituzte oinarritzko eginkizunekin.

Azkenik, monitore eta koordinatzaileetatik jasotako datuetan ikusi da, lan ordu gutxi izatea, kontraturik gabe lan egitea, formakuntza falta, hitzarmen baten beharra edota baliabide eskasia direla kexa nagusiak Eskola Kirolaren lan baldintzen inguruan. Hauek dioten bezala, benetazko proiektu hezitzaile eta parte hartzaile bat bultzatzeko, haurren garapen integrala bermatuko duena, profesional formatuak edukitzea beharrezkoa da, bai monitore lanetan eta baita koordinazio lanetan. Baina Frailek (2011) edo Monteagudok (2014) dioten bezala, eskola kirolak urteetan arazo handiak izan ditu langileen erregularizaziorako, eta pixkanaka lan baldintzak hobetzen ari diren harren, ez dira nahikoa erregulatu. EAEko eskoletan, Eskola Kirolak ikasleen garapenean eragin ditzaken ekarpen positiboak eman daitezten, baliabide gehiago bideratu behar dira instituzioetatik, proiektu hauetako langileen prestakuntzak eta profesionalizatzeko eragin zuzena izango baitu praktikan (Monjas et al. 2015).

## **7. PROPOSAMENA**

Atal honetan nire proposamena azalduko dut, EKren eta GHaren elkarlana hobetzeko bidean, bi eremuek ikasleen garapen integralari eta kompetentzia motorraren garapenari egin dezaketenean ekarpena balioan jarriz.

Praktika motorreko eremu arautu gisa, behar beharrezkoa iruditzen zait Eskola Kirola Gorputz Heziketaren osagarria izan behar den proiektu bezala ulertzea. Kompetentzia motorrak ikasleen garapen integralean duen garrantzia ukaezina da, haurrek bizi estilo aktibo bat garatu dezaten eta honek osasunean dituen eragin positiboak lor ditzaten. Beraz, praktika motorreko eremuek garrantzia handia hartzen dute ikaslearen garapenean, erreferentzia den Gorputz Heziketako ikasgaiak ikasleen 100%ean, eta EK beste ehuneko handi batentzat. GHk curriculumean eta beste ikasgaien artean duen pisua, ordu kopuruari eta ospari erreparatuz, baxua dela esan ohi dugu eta kasu askotan hankamotz geratzen dela, baina hau diogunean ez dugu EKa GHren luzapen bat bezala ikusten.

EKaren helburu hezitzailea eta funtzionamendu egokia bermatzea ikastetxeen zeregina da hein handi batean. EKa Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan eta Urteko Planean aintzat hartzea garrantzitsua iruditzen zait, horrela irakasleen eta eskolako beste langileen inplikazioa bermatzeko. EK eskola komunitatearen eta hezkuntza proiektuaren barruan egoteak, langileak eta proiektua bera babestu eta sendotzen ditu.

Lotura hau eman eta Eskola Kirola hezitzailea izan dadin, Gorputz Heziketako profesionalen esku hartzea behar beharrezkoa da. Saioen diseinua, lehiaketa eredua, multikirol programak eta eskola kirolaren helburuak Gorputz Heziketaren logika eta programaketarekin bat joan behar dira. Eraldaketa hau, EAEaren kasuan, autonomia erkidego osorako proiektu berritzaile baten eskutik dator, hau da, Eskola Kirolean parte hartzen duten haur guztiei aukera berdina eskaintzeko, beharrezkoa da hau erregulatuko duen lege orokor berri bat, benetan proiektu hauen izaera hezitzailea eta hezkuntza helburuak defendatuko dituen.

Hala ere, guztia hau aurrera joan ahal izateko Eskola Kiroleko langileen erregularizazioa behar beharrezkoa da, hitzarmen baten sorkuntza, langileak profesionalizatzeko eta lan baldintzak hobetzeko aukera emango duena. Hau gabe, ezinezkoa izango da legedi bat edo beste aplikatzea, edota proiektu berritzaile bat aurrera eramatea. Beraz, Eskola Kirolaren eraldaketa errotik ematea beharrezkoa dela iruditzen zait, instituzioek apustu garbi bat egin behar dute gure ikasleen garapen motorra bultzatzeko, eta horretarako behar diren baliabide eta profesionalak bideratzea beharrezkoa da.

## **8. LANAREN INDARGUNEAK ETA AHULGUNEAK**

Azken atal honetan lan honen indargune eta ahulguneak aztertuko ditut, ikerketa prozesuan izandako aukerak eta mugak plazaratzeko. Lan hau, eskola adineko heziketa fisikoari ekarpena egiteko intentzioarekin egin da, GH eta EKaren artean dagoen lotura aztertuz. Ikerketan Eskola Kiroleko langileetara iristeko izan dudan aukera azpimarratu nahi dut, 33 monitorek hartu baitute parte. Aldi berean, zailtasunak izan ditut koordinatzaile askora iristeko, alde horretatik motz geratu naizela esango nuke. Alegia, koordinatzaile gehiagora iristea espero nuen baina denbora eta koordinatzaileen prestutasuna muga nabarmenak izan dira.

Beraz, aurrerago lan honekin jarraitzeko aukera izango banu, emango nukeen lehen urratsa koordinatzaile gehiagoren parte hartzea bermatzea izango litzake. Bestetik, interesgarria iruditzen zait lan honetan gorputz heziketako profesionalen iritzia bilduko banuke, EKko langileekin GHko irakasleen parte hartzea ere izateko. Horretarako, beste galdetegi bat sortuko nuke, GHko irakasleei bideratuta monitore zein koordinatzaileek jorratutako gai berdinekin, horrela beste galdetegien emaitzekin alderatu ahal izateko. Oso aberasgarria litzake lan honentzat GHko profesionalen parte hartzea, eta baita Lehen Hezkuntzako graduko GHko minorreko irakasleena.

Azkenik, lan honek duen beste muga bat ateratako ondorio eta hobekuntza proposamenak errealitatera ekartzeko gaitasuna da. Informazio bilketak eta ikerketaren emaitzek zenbait ondorio ateratzera eraman naute, eta honek hobekuntza proposamen batera EKren helburu hezitzailea indartzeko eta GHrekin duen lotura estutzeko, hala ere, ziurrenik proposamen hau lan honetara mugatuko da.

## 9. BIBLIOGRAFIA

Gipuzkoako Diputazioa (2021). Kirolean harremanak euskaraz ematea sustatzeko 2021-2024 urteetarako plana.

Azurmendi, A. (2017). Eskola Kirolean neska-mutilen partaidetza mistoa edo banatua: datuetan oinarritutako proposamena. *Argia*.

Zulaika, L. M. (2006). Kirol Hezitzailea: balizko onurak eta errealitateko arriskuak. *Ikastaria*, 15, 113-121.

Monjas, R., Ponce, A. eta Gea, J. M. (2015). La transmisión de valores a través del deporte. Deporte escolar y deporte federado: relaciones, puentes y posibles transferencias. *Retos*, 28, 276-284.

Fraille, A., de Diego, R. eta Boada, J. (2011). El perfil de los técnicos del deporte escolar en un contexto europeo. *Revista Internacional de Medicina y Ciencias de la Actividad Física y el Deporte*, 11(42), 278-297

Ortúzar, I. (2004). El deporte escolar y el profesorado de educación física. (Doktorego Tesia). Leioa. Bizkaia.

Ortuzar, I. (2006). Deporte escolar y proyecto educativo de centro. *Ikastaria*, 15, 81-88.

Monteagudo, M.J., Ahedo, R., Doistua, J. eta Richter, F. (2014). Aportaciones al Modelo de Deporte Escolar en el Territorio Histórico de Bizkaia. Instituto de Estudios de Ocio. Facultad de Ciencias Sociales y Humanas. Universidad de Deusto.

Agirre, N., Aizarna, K., Azpezetxea, M., Azpiroz, A., Garmendia, I., Larrañaga, I., Larreta, A., Oiarbide, J., Txapartegi, J., Urbe, A. eta Usobiaga, A. (2013b). Kirolean ere hezi egiten da. *Hazi hezi*, 7, 34-35.

Devís Devís, J. (1995). Deporte, educación y sociedad: hacia un deporte escolar diferente. *Revista de Educación*.

Monteagudo, M.J., Ahedo, R., Doistua, J. eta Richter, F. (2014). Aportaciones al Modelo de Deporte Escolar en el Territorio Histórico de Bizkaia. Instituto de Estudios de Ocio. Facultad de Ciencias Sociales y Humanas. Universidad de Deusto

Rodríguez, Á. F., Rodríguez, J. C., Guerrero, H. I., Arias, E. R., Paredes, A. E. eta Chávez, V. A. (2020). Beneficios de la actividad física para niños y adolescentes en el contexto escolar. *Revista Cubana de Medicina General Integral*, 36(2).

Sánchez, E. (2011). Beneficios de la Educación Física y el deporte en los escolares. *Rev. Digit. Innovación E Exp. Educ*, 39, 1-9.

Desarrollo motor. Adaptación de los modelos Gallahue's Triangulated Hourglass (Gallahue et al., 2006)<sup>15</sup> y el Mountain of Motor Development (Clark y Metcalfe, 2002)<sup>20</sup>.

Tinning, R. (1986). Discursos que orientan el campo del movimiento humano y el problema de la formación del profesorado. *Revista de educación*.

Fort-Vanmeerhaeghe, A., Román-Viñas, B., & Font-Lladó, R. (2017). ¿ Por qué es importante desarrollar la competencia motriz en la infancia y la adolescencia? Base para un estilo de vida saludable. *Apunts. Medicina de l'Esport*, 52(195), 103-112.

Pacheco, J. (2011). El desarrollo de la competencia motriz en la educación física escolar.: El caso de canarias. *Acciónmotriz*, (7), 30-37.

Larraz, A. (2008). Valores y dominios de acción motriz en la programación de educación física para la educación primaria. *Seminario Internacional De Praxiología Motriz, Huesca*.

Gómez Rijo, A., Fernández Cabrera, J. M., Hernandez Moreno, J. M., Sosa Álvarez, G. S., & Pacheco Lara, J. J. (2020). (Re) pensar la competencia motriz. *Retos*.

World Health Organization. (2010). Recomendaciones mundiales sobre actividad física para la salud.

Devís Devís, J., & Peiró Velert, C. (1993). La actividad física y la promoción de la salud en niños/as y jóvenes: la escuela y la educación física. *Revista de psicología del deporte*, 2(2), 0071-86.



González, S., García, L. M., Contreras, O., & Sánchez-Mora, D. (2009). El concepto de iniciación deportiva en la actualidad. *Retos. Nuevas tendencias en Educación Física, Deporte y Recreación*, 15, 14-20.

Lopez de Abetxuko Ruiz, H. (2021). Kirolean hezi eta ez kirolerako.

## 10. ERANSKINAK

### 10.1. Monitoreen galdetegia

1. Adina	
2. Sexua	Gizonezkoa
	Emakumezkoa
	Beste bat:
3. Ikastetxea	
4. Eskola Kiroleko monitore	Kontratuarekin
	Kontratu gabe
	Beste batzuk:
5. Zure kasuan, zein dira zure ikasketak gaur egun?	Batxilergoa
	Unibertsitateko gradua
	Goi mailako gradua
	Derrigorrezko hezkuntza
	Beste batzuk:
6. Jarduera Fisikoaren arloko formakuntza	Jarduera Fisikoan eta Kirol Zientzietan lizentziatua
	Gorputz Hezkuntzan espezializatutako irakaslea
	Jarduera Fisiko eta Kirol animazioan goi teknikaria
	Kirol teknikaria
	Bat ere ez
	Beste batzuk:
7. Zein kurtsoan zara monitore?	Batean
	Batean baina gehiagotan
8. Zenbat urte daramazu eskola kiroleko monitore lanetan?	
9. Ba al dago koordinatzailerik?	Bai
	Ez
10. Koordinatzailea	Ikastetxeko Gorputz Heziketako irakaslea
	Ikastetxeko beste irakasle bat

	Kirol teknikaria
	Guraso elkarteko kidea
	Beste batzuk:
11. Kirol koordinatzailearen zereginak:	Monitoreak koordinatu, entrenamendu eta partidoetarako
	Monitoreak formatu
	Saioak sortzen lagundu
	Saioak aurrera eraman
	Gurasoekin kontaktuan egon
	Asteburuetako partidoen guneen koordinazioa
	Beste batzuk:
12. Zertan gustatuko litzaizuke laguntzea koordinatzaileak?	
13. 1. eta 2. mailan zenbat saio dituzte?	Bakarra
	Bi
	Ez dago Eskola Kirol eskaintzarik adin hauetarako
	Ez dakit, ez naiz monitoreak adin hauetan
14. 3. mailatik 6. mailara, zenbat saio dituzte?	Bi saio eta partidoa
	Saio bat
	Bi saio
	Beste batzuk:
15. Asteko saioen helburua(k):	Joko-jolasak egin
	Kiroletako teknika eta taktikak garatu
	Talde kohesioa bultzatu
	Alderdi fisikoak garatu
	Jarrera egokiak bultzatu
	Lehiaketa
	Beste batzuk:
16. Asteburuetako partidoen helburuak:	Lehiatzea eta partidoa irabaztea
	Ikasteen parte hartzea bermatzea

	Ikasleen gozamina bultzatzea
	Arauek, taldekideak eta aurkariak errespetatzen ikastea
	Beste batzuk:
17. Eskola Kirolaren helburu nagusia:	Jolasa
	Hezitzailea
	Lehiaketa
	Harremanak
	Osasuna hobetu
	Adierazpena
	Kirolarekiko atxikimendua
	Beste batzuk:
18. Ba al dakizu zer den garapen integrala?	Bai
	Ez
19. Hurrek garapen integrala lortzeko Jarduera fisikoa praktikatzea beharrezkoa da.	Erabat desados
	Zerbait desados
	Ez ados ez desados
	Zerbait ados
	Erabat ados
20. Eskola kirolak garapen fisikoan laguntzen du eta osasuna hobetzen du.	Erabat desados
	Zerbait desados
	Ez ados ez desados
	Zerbait ados
	Erabat ados
21. Eskola Kirolaren bitartez, hurrek beraien konfiantza eta autoestimua hobetzen dute (ondorio emozional onuragarriak ditu)	Erabat desados
	Zerbait desados
	Ez ados ez desados
	Zerbait ados
	Erabat ados

22. Eskola Kirolaren bitartez balio positiboak transmititu daitezke (joko garbia, araukiko errespetua, laguntasuna, taldekidetzeta...)	Erabat desados
	Zerbait desados
	Ez ados ez desados
	Zerbait ados
	Erabat ados
23. Eskola Kirolaren bitartez balio negatiboak transmititu daitezke (harrokeria, agresibitatea, maskulinitasun hegeminokoa, ahulenak baztertzea...)	Erabat desados
	Zerbait desados
	Ez ados ez desados
	Zerbait ados
	Erabat ados
24. Eskola adinean ahalik eta kirol desberdin gehienetan (Multikirola) jardutea onuragarria da haurrentzat.	Erabat desados
	Zerbait desados
	Ez ados ez desados
	Zerbait ados
	Erabat ados
25. Eskola adinean, gazteegi espezializatzea kirol batean ez da egokiena ikaslearen garapenerako.	Erabat desados
	Zerbait desados
	Ez ados ez desados
	Zerbait ados
	Erabat ados
26. Eskola Kirolean neska eta mutilen parte hartzea berdina da.	Erabat desados
	Zerbait desados
	Ez ados ez desados
	Zerbait ados
	Erabat ados
27. Konpetentzia motorra zer den badakizu?	Bai
	Ez
28. Eskola Kirolak eta Gorputz Heziketak antzekotasun asko dituzte.	Erabat desados
	Zerbait desados

	Ez ados ez desados
	Zerbait ados
	Erabat ados
29. Eskola Kirolaren eta Gorputz Heziketaren helburuak:	Guztiz desberdinak dira
	Zerbaitetan antzeman daitezke
	Oso antzekoak dira
30. Gorputz Heziketako profesionalen esku hartzea beharrezkoa da eskolaz kanpoko jardueren programazio eta diseinuan, Eskola Kirolaren helburu hezitzailea bermatzeko.	Erabat desados
	Zerbait desados
	Ez ados ez desagos
	Zerbait ados
	Erabat ados
31. Eskola Kirolaren helburu hezitzailea bermatzeko monitoreen formakuntza bultzatu behar da.	Erabat desados
	Zerbait desados
	Ez ados ez desagos
	Zerbait ados
	Erabat ados
32. Monitoreen formakuntza hau bermatu behar dutenak edo horretan lagundu behar dutenak hauek dira:	Koordinatzailea
	Guraso elkartea
	Eskolako Gorputz Heziketako irakaslea
	Kirol teknikaria
	Monitorea bera bere kabuz
33. Amaitzeko, zer egingo zenuke Eskola Kirola hobetzeko?	

## 10.2. Koordinatzaileen galdetegia

1. Adina	
2. Sexua	Gizonezkoa
	Emakumezkoa
	Beste bat:
3. Ikasketa maila	Batxilergoa
	Goi Mailako Gradua
	Unibertsitateko Gradua
	Beste bat:
4. Jarduera Fisikoaren edo Hezkuntzaren arloko ikasketarik al duzu? Zehaztu	Jarduera Fisiko eta Kirol zientzietan lizentziatua
	Gorputz Hezkuntzan espezializaturiko irakaslea
	Irakaslea
	Jarduera Fisiko eta Kirol animazioan goi teknikaria
	Kirol teknikaria
	Beste batzuk:
5. Zenbat orduko kontratua duzu koordinatzaile bezala? (asteko zenbat ordu, zenbakiz)	
6. Beste lanik ba al duzu?	Bai
	Ez
7. Zereginak koordinatzaile bezala:	Monitoreak koordinatu, entrenamendu eta partidoetarako
	Monitoreak formatu
	Saioak sortzen lagundu
	Saioak aurrera eraman
	Gurasoekin kontaktuan egon
	Asteburuetako partidoen guneen koordinazioa
	Beste batzuk:
8. Zer aldatuko zenuke zure lan baldintzak hobetzeko? Edota lana hobetzeko?	

9. Zergatik essango zenuke dela garrantzitsua koordinatzailearen lana?	
10. Zein da zure eskolako Eskola Kirolaren eskaintza?	1. maila
	2. maila
	3. maila
	4. maila
	5. maila
	6. maila
11. Zeintzuk dira asteko saioen helburuak 1. eta 2. mailan?	Joko-jolasak egin
	Kiroletako teknika eta taktikak garatu
	Talde kohesioa bultzatu
	Alderdi fisikoak garatu
	Jarrera egokiak bultzatu
	Lehiaketa
	Beste batzuk:
12. Zeintzuk dira asteko saioen helburuak 3. 4. 5. eta 6 mailan?	Joko-jolasak egin
	Kiroletako teknika eta taktikak garatu
	Talde kohesioa bultzatu
	Alderdi fisikoak garatu
	Jarrera egokiak bultzatu
	Lehiaketa
	Beste batzuk:
13. Asteburuetako partidoen helburuak:	Lehiatzea eta partidoa irabaztea
	Ikasteen parte hartzea bermatzea
	Ikasleen gozamina bultzatzea
	Arauak, taldekideak eta aurkariak errespetatzen ikastea
	Beste batzuk:
14. Eskola Kirolaren helburu nagusia:	Jolasa



	Hezitzailea
	Lehiaketa
	Harremanak
	Osasuna hobetu
	Adierazpena
	Kirolarekiko atxikimendua
	Beste batzuk:
15. Haurrek garapen integrala lortzeko Jarduera fisikoa praktikatzea beharrezkoa da.	Erabat desados
	Zerbait desados
	Ez ados ez desados
	Zerbait ados
	Erabat ados
16. Eskola kirolak garapen fisikoan laguntzen du eta osasuna hobetzen du.	Erabat desados
	Zerbait desados
	Ez ados ez desados
	Zerbait ados
	Erabat ados
17. Eskola Kirolaren bitartez, haurrek beraien konfiantza eta autoestimua hobetzen dute (ondorio emozional onuragarriak ditu)	Erabat desados
	Zerbait desados
	Ez ados ez desados
	Zerbait ados
	Erabat ados
18. Eskola Kirolaren bitartez balio positiboak transmititu daitezke (joko garbia, arauetikiko errespetua, laguntasuna, taldekidetzeta...)	Erabat desados
	Zerbait desados
	Ez ados ez desados
	Zerbait ados
	Erabat ados
19. Eskola Kirolaren bitartez balio negatiboak transmititu daitezke (harrokeria, agresibitatea,	Erabat desados
	Zerbait desados

maskulinitasun hegeminokoa, ahulenak baztertzea...)	Ez ados ez desados
	Zerbait ados
	Erabat ados
20. Eskola adinean ahalik eta kirol desberdin gehienetan (Multikirola) jardutea onuragarria da haurrentzat.	Erabat desados
	Zerbait desados
	Ez ados ez desados
	Zerbait ados
	Erabat ados
21. Eskola adinean, gazteegi espezializatzea kirol batean ez da egokiena ikaslearen garapenerako.	Erabat desados
	Zerbait desados
	Ez ados ez desados
	Zerbait ados
	Erabat ados
22. Eskola Kirolean neska eta mutilen parte hartzea berdina da.	Erabat desados
	Zerbait desados
	Ez ados ez desados
	Zerbait ados
	Erabat ados
23. Nola lortu daiteke helburu hezitzaile hauek bermatzea Eskola Kirolean? Gehitu zure ideiak nahi baduzu	Baliabide gehiago bideratuz Eskola Kirolera
	Monitorean formakuntza bultzatuz
	Egiten dugun lana eta monitoreena formalizatuz
	Errendimendura bideratutako klubei garrantzia gutxiago emanez
	Gorputz Hezkuntzako profesionalen esku hartzea bultzatuz
	Proiektu berritzaile eta hezitzaileagoak sortuz
	Beste batzuk:
24. Eskola adinean, Konpetentzia Motorra garatzeko eremu arautuak Eskola Kirola eta Gorputz Heziketa dira. Hauek:	Antzeko helburuak dituzte baina ez daude koordinatuak
	Helburu berberak dituzte eta elkarlana dago eremu bateko eta besteko langileen artean

	Bat derrigorrezkoa denez eta bestea ez, ematen zaien garrantzia oso desberdina da
	Ez dute zerikusirik, bata bestetik oso urrun daude
	Beste batzuk:
25. Eskola Kirola eta Gorputz Heziketa elkarlanean eta koordinatuak egotea onuragarria litzake ikasleen garapanerako.	Erabat desados
	Zerbait desados
	Ez ados ez desagos
	Zerbait ados
	Erabat ados
26. Eskola Kirolaren eta Gorputz Heziketaren helburuak:	Guztiz desberdinak dira
	Zerbaitetan antzeman daitezke
	Oso antzekoak dira
27. Gorputz Heziketako profesionalen esku hartzea beharrezkoa da eskolaz kanpoko jardueren programazio eta diseinuan, Eskola Kirolaren helburu hezitzailea bermatzeko.	Erabat desados
	Zerbait desados
	Ez ados ez desagos
	Zerbait ados
	Erabat ados
28. Amaitzeko, zer egingo zenuke Eskola Kirola hobetzeko?	